


ttipi-ttapa

**Egoerara egokitzeke
eginahal berezia egin
dute Benito Menni
zentroan / 10**



**Izaro Urrutia eta
Berta Mugiro
baziandarrak
Osasunan / 38**



**Ibai Azurmendi
Euskaltel-Euskadi
taldeko txirrindulari
leitzarra / 44**

SINADURAK



GARAZI
ZABALETA
URKIOLA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



AITZIBER
ALMANDOZ
LARRALDE / 4



JOSEBA
URROTZ
TELLETXEA / 4



ZOKKETA / 46



Amaia ITURRIRIA BARRENETXE | Abeltzaina

**«ZENBAITETAN IDURI DU
NEKAZARION LANA
EZ DELA BALORATUA»**

Lurrarekin eta inguruarekin lotutako bizimodua egiteko nahiak bultzatuta, duela urte bat eta erdi lehen sektorean hasi zen sortez azpilkuetarra eta Gartzainen bizi den gaztea. Amestutakoari bide eginez, gaur egun, ogibidez abeltzaina da: behor, behi eta ardiekin egiten du lan. / 8

Euskararen amasgune bila

Itxialdiaren ondotik, euskaltegietako ikasleak euskaraz aditzeko eta euskara aritzeko gogotsu. / 28

BERA LESAKA

Agenda 2020

UZTAILA
ABUZTUA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

UZTAILA

24

ORTZIRALEA

EKITALDIA
Muxikoak

19:00 Alkaiagan.
Tadea Jaiki Hadi Taldearekin

LESAKA

25

LARUNBATA

EKITALDIA
Hezurbeltzak

19:00 Merkatu plaza.
Informazio gehiago
www.hezurbeltzak.com

BERA

ABUZTUA

01

LARUNBATA

KONTZERTUA
Erabatera

19:00 Altzateko plaza.
Informazio gehiago
www.erabatera.eus

BERA

02

IGANDEA

PILOTA PARTIDA
Urrutikoetxea-Irribarria
Altuna III-Imaz

17:00 Eztegara pilotalekua.
Sarrerak salgai Agara prentsan eta
www.entradasfronton.com

BERA

26

IGANDEA

TXIRRINDULARITZA PROBA
Berako XII. Saria
(kadeteak).
Luzera: 44 km

Irteera 11:00 Bidasoa karrika.
Helmuga 12:00 (g.g.b.).
Ibilbidea 10 buelta zirkuitu honi:
Bidasoa karrika - San Esteban karrika
Gemikako arbola zeharbidea - Gemikako
arbola karrika - San Esteban karrika
- Zalaingo biribilgunea - Zalaín Indal. -
Laminazionesko zubia - Bidasoko Trenbidea
- Geltokiko zubia - Agerrako biribilgunea -
Bidasoa karrika (helmuga)
Antolatzailea Gure Txokoa elkarte

BERA

30

ORTZEGUNA

EKITALDIA
Matriuska
antzerkia

22:00 Bixkantxeneako plaza.
Tadea Kamikaz kolektiboa

LESAKA

03

ASTELEHENA

SU ARTIFIZIALAK
Oscense Piroteknia
(Huesca)

23:00 Toki Onako patiotik.
Informazio gehiago
www.piroteknia-oscense.com

BERA

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIESeK **Nafarroa Garaiko
mendialdean** hartu duen
111 udalerrien eremuan ere.

32.000 irakurle

Diario de Noticias
12.000 irakurle

Diario de Navarra
10.000 irakurle

Bertze batzuk
7.000 irakurle

Gara
5.000 irakurle

Berria
3.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA

%54,6

EMAKUMEAK

%45,4

GIZONAK

ADINAREN ARABERA

14-19 urte	20-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	+64 urte
%4,3	%3	%11,7	%25	%14,5	%18,2	%23,3

IKASKETA MAILAREN ARABERA

%12,3

Oinarrizko ikasketak

%40,4

Unibertsitatea

%11,8

Oinarrizko batxillergoa

%35,6

Goi mailako batxillergoa

DATU ITURRIA: CIES, 2019ko metatuak

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

GARAZI ZABALETA URKIOLA

Ezin bada dantzatu

Bi hilabete eskas dira etxeko giltzaperatetik pixkanaka askatzen hasi ginela, eta konfinamendura zein azkar ohitu ginen harrigarria izan bazen (honetan ere, bizitzako esparru guztietan bezala, batzuk errazago izan dute besteek baino), are harrigarriagoa iruditzen zait 'normalitate berri' bezala izendatutako garai honetara zein azkar egin garen. Pertsonak sailkatu eta hierarkizatzeke modu berri bat sortu da koronabirusarekin: arduratsuak eta arduragabeak. Baina, ba al dakigu zer den 'arduraz' jokatzea? Edo 'arduraz' jokatzeko inposatu dizkiguten arauak aplikatzeko itxurak egiten ditugu gehiegi pentsatu gabe? Lagun bat besarkatzeak arduragabe egiten al nau? Eta dantzaleku batean (edo edonon) dantzatzeak? Nik ere zalantza asko ditut, eta arduraz jokatu nahi dut. Baina uste dut babes neurriak (askotan zentzugabeak) hartzen ditugula erakusteak isun batetik libratu bai, baina bere horretan ez gaituela arduratsua egiten. Eta are gutxiago gure bizitzak goxatzen dituzten gauzei zentzurik gabe uko egiteak. Burura datorkit: «Ezin bada dantzatu, ez da nire deseskalatzea...».

«HARRIGARRIA DA ZEIN AZKAR EGIN GAREN NORMALITATE BERRIRA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Hurrengo urtera arte ez da bestarik

Gaixoa ni. Aurten bai erran daiteke, nonahi gainera: heldu den urtera arte ez da bestarik... Bestarik gabeko bestondoa daukagu, burukominik gabeko ajea. Bestaren seinaleak bai, ikusi ditugu: bazkaritxo bat hemen, panpinez egindako prozesioa... Ostatuere ere ederki egin diote aurre egoerari: behar zenean atea itxiz, leihotik zerbitzatuz... Zorionak!

NABARMENTZEKOAK



HAIRA
AIZPURUA IBARGARAI
BERTSOLARIA



PETTI
MUSIKARIA

Haira Aizpurua Ibargaraik (2006, Sara) irabazi zuen uztailaren 11n Senperen jokatu zen Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsolari Gazteen Txapelketa.

Kontzertu andana utzi behar izan zituen bertan behera, tartean, *Manipulazio estrategiak* azken diskoaren aurkezpena. Baina berriz hasia da. Igandean Lesakan aritzekoa zen eta abuztuan Arantzan.

ATZERA BEGIRA



2010-07-22 · TTIPI-TTAPA · 523 zk.

Saharako haurrak gure artean

Halako irudirik ez dugu ikusi aurten, Covid-19ak hankaz goiti utzi duelako urtero-urtero Sahararik eskualdera etorri ohi diren neska-mutikoen bisita. Duela hamar urte, erraterako, Saharaztan Baztan-Bidasoko Saharar Herriaren Aldeko Elkartasun Taldearen eta Leitzako Saharar Herriarekin Elkartasun Taldearen eskutik uztailaren 9an 17 neska-mutiko etorri ziren: lau Malerrekarara, bi Bortzirietara, bederatzi Baztanera eta bi Leitzara. Urtero bezala, basamortuko bero itogarrietako hilabeteak kanpoan igarotzeko aukera izateaz gain, osasun arloko zaintza eskaini zieten eskualdean pasatu zituzten bi hilabeteetan. Argazkia duela hamar urte harrera familiekin Bertizen ateratakoa da.



erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amalia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemalleak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoién,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari
Barriola, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amalia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Akelarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra





KOLABORAZIOAK

AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE

Musukoa ala musuka?

Martxo geroztik gai bakarra dabilkigu inguruan. Erabat izutuak egon izan gara, haserre eta atsekabetuak ere bai. Munduak erabakia baitzuen non, noiz eta nola izan behar genuen. Aspalditik erabakia eman zaigulakoan nintzen, baina azken ibilerek garbi utzi digute, bertze behin, txo-txongilo soilak garelako munduarentzat. Gelditu gaituzte eta gelditu gara, ustez gure osasuna zaintzeko helburuz gure etxean preso izan gaituzte. Kexatu egin gara, nola ez burujabetza eta autodeterminazioa nahi ditugulako. Osasuna eta gaitza mahai gainean jarri dizkigute eta ordura arte natural genuena, besarkadak, ukitzea, hurbiltzea, elkar sentitzea gaitza bera baino arriskutsuago bilakatu zaizkigu. Bi bide omen ditugu, egiak bezala, nahiz eta gehienetan zurea, nirea eta egiazko egia egon. Bi bide jarri dizkigute argi, autoritateari kasu egin eta kexatzea, honetan bizkorrak gara gizakiak, edota osasuntsu izateko aukera egin eta norbere baitan dagoena eginez, sentitzen dugunari kasu eginez, ausarta izan eta kexatzeko aitzakiarik gabe aitzinera egiten ikastea. Azken aukera hau ez bada sobera eroso ere, norbere buruaren jabe izateko aukera bakar gisara daukat. Indibidualista eta materialistago bilakatu omen gara, lehen baino gehiago, posible bada behintzat itxialdiaren ondotik. Ahoa

«BIZIPOZA BERRESKURATZEN HASIAK GAREN HONETAN, MUNDUAK EZ DITU BARRENAK LASAI»

atzendu gure gorputza zainduz edozein birusen aitzinean indartsu izan gintezkeela eta atzendu ditugu, bertzeak bertze, gure etxeko argitxoak, gure haurrak.

Gure esperantza dira haurrak eta itxialdian azken putz izan ditugu. Beraien argitxo itzaltzeraino estutu dizkiegu aukerak eta desnaturalizatu ditugu urrikaldu gabe. Eskolara joan gabe egon dira pantailen aitzinean etxeko lanak eginez eta eskolak duen magia itzaltzeraino urrundu ditugu guretik. Munduaren premia beraienaren gaintetik jarri eta mundu hau aldatzeko duten gaitasuna gutxietsi dugu. Eskerrak eskola ikasturtea bukatu dela, eta herriko karririk hurrez bete direla, putzu beltzen oihu eta irrien oihartzuna sumatzen da, leku uspelak goxatu dira beraien builekin. Bizipoza berreskuratzen hasiak garen honetan, munduak ez ditu barrenak lasai. Arantzan udako beroari aitzin egiteko zaharberritzen ari ziren presaren aukera ere ukatu dio munduak gure haurrei. Mundu zahar hau *barrengaldu* bilakatu ote da?

betetzen dugu, elkar banatzea, partekatzea eta bertzeen ona egin nahi dugula erranez. Nirea niretzako eta zurea erdi bana egin dugu badaezpada. Atzendu ditugu lehentasunak,



JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Hil da Jainkoa (2)

Aurten eliza katolikoak ez du Aste Saindurik ospatu, ez da sermoirik egin bolada batez, hortaz nik aprobetxatuko dut nirea egiteko.

Lehen ere agertu izan dut izenburu honekin nire predikua, hileta batean, nire ustez jendeak nabari zuen lasaitasuna eta solaserako gogoaren haritik.

Nire baitan nion ea heriotzaren aitzinean itxuraz dugun lasaitasun hori (tanatorioetan ere ikusten dut), honezkero heriotza ezezagun ikaragarri horri beldurra galdu diogulako ote den. Zientziak eta arrazoiak erran digutelako hil ondotik ez dugula deus izanen, momentua gozatu bertzerik ez dugula eta horrela lasai gelditu garelako, alegia.

Eta hara non itxura denez ez da hala. Gure artera ikusezina den izaki bat sartu omen zaigu (milaka izanen baditugu ere, ohartu gabe), eta gure bizi ederra arriskuan ikusi dugu.

Kristauek eurek ere, geroko zero ederrean sinesten dutenek, kutsatzeko beldurrik gabe legendunengana hurbiltzen omen zen Jesusen jarraitzaileek, heriotzaren beldur, elkartzeari utzi diote.

Guda hizkuntza atera dugu kajoitik: «guda da hau», «irabaziko dugu», «aizu koronabirusa, zuri aurre egiteko prest gaude!». Eta koronabirusari bortz axola zaio guk oihu edo

«EGUNERO 22.000 HAUR HILTZEN OMEN DIRA GOSEZ BAINA EZ DIO AXOLA»

gorro egitea, bere helburua ez da gudarik irabaztea. Zorionerako edo txarrerako gutako ia inork ez du egiazko guda bat bizitu, tiro, bonba, gose eta miseriekin. Guk, ordea, erronka eta mehatxu gogor horiek gure gotorlekutik bota dizkiogu eraso ikusezinari, Franko ondotik inoiz izan den askatasun murrizketarik handiena pozik onartu dugu, gure bizi altxorra hau zaindu nahirik. Heriotzari bizkarra eman eta inoiz baino hobeki bizi garen honetan, gure bizi altxorra galtzeko beldur handia dugu, aberatsak diru fardela bezala.

Eta holako gauzak erraten ari den hau, hil behararen aitzinean kakatietan kakatiena duzu, baina ikusi dut gizarte honek ere beldur handia diola heriotzari. Bizia zentzua zein den oraindik zientziak argitu ez digulako akaso? Talentuen parabolaren dioen bezala, bizi hau ez da bakarrik bere horretan eusteko, etekina ateratzeko baizik.

Nik ez dut inor ezagutu azkeneko hilabetetan Covid-az hil denik, bai, ordea, minbizi, bihotzeko edo istripuz, haien zenbakiak ez dira komunikabideetan agertu, baina familia-koen mina berdin hor dago. Inork ez du hileta ziztrin bat ere izan, segur aski mehatxoren bat ere egin zioten hildakoari lehenago izurriterik gogorrean ere.

Orain arte munduan 560.000 lagun hil omen dira Covid-egatik, mila biztanleko 0,072. Egunero 22.000 haur hiltzen omen dira gosez munduan, 8 miloi urtean, Guatemalan errate baterako, jaiotako mila haurretik 44! Baina horrek ez dio axola, guk badugu janaria zabortegira botatzeko adina, maskara behar dugu.

11 GALDERA LABUR

AIMAR SALDIAS LARRAIOZ ERREMORTE JOKALARIA

«Gazteek erremontea probatzea nahi nuke, bizirik segi dezan»

Zer zaletasun dituzu?

Ehiza, motorrak, mendira joatea, lagunekin egotea eta erremontean aritzea.

Anaia erremontista izanik, bere arrimuan hasi zinela erran daiteke?

Bai, ikustera joan nintzen eta gustuko nuen. Berak animatuta, orain lauzpabortz urte Doneztebeko erremonte eskolan hasi nintzen.

Berriki profesionaletara egin duzu salto. Ekainaren 26an Agoitzen egin zenuen estreinaldia...

Doneztebeko Aimar Jabalera bikote nuela egin nuen debuta, biok aldi berean debutatu genuen. Egia erran, partida polita egin eta gozatzeko aukera izan genuen...

laz ere partidaren bat jokatu zenuen profesionalekin... gauza bera izan al da?

Joan den urtean ez genuen debutatu baina profesionalekin jokatzeko aukera izan genuen eta, orduan ere profesional batekin aritu nintzenez, ez zait salto handia iruditu.

Erremontista gisa, zein dira zure indarguneak?


Egunak izaten ditut, ez dut bereziki gauza bat azpimarratzen ahal.

Alde Zaharreko VI. Erremonte Txapelketan aritu zara... Zer moduz ikusi duzu zeure burua?

Ongi, Aimar Jabalarekin ere ongi moldatu naiz, berarengan konfiantza handia izan dudalako.

Zer nolako giroa eraiki duzue e-Remonte Beti Euskal Jai enpresa berrian?

Giro ona dugu gure artean, erremontista gehiago ezagu-



tzeko aukera izan dut. Horixe da gehien gustatu zaidana, eurekin egon eta momentu onak pasatzea.

Kirola bezainbeste gustatzen zaizu besta?

Bai, egia erran bai. Lagunekin atera, ongi pasatzea gustatzen zait. Orain koronabirusarekin bestarik ez da, baina ea gero erremontearekin nola moldatzen garen. Ahal denean egingen dugu eta ezin denean ez. Hurrengo egunean partidak edo

entrenamenduak izanez gero ezin da egin, ongi egon beharra dago.

Non eta noren aurka jokatuko zenuke partidaren bat?

Non eta noren kontra berdin zait, ikusleak eta giroa izatea aski da gozatzeko.

Erremontea utzi eta atseden hartzeko, Oizko txokorik politena?

Txoko polit asko ditu herriak eta bakoitzak badu bere xarma.

Amets bat?

Erremontek bizirik segitzea.

Merkealdia

1951tik
Casa Cambra
lantzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Eskertza**PATRICIA ARTEAGA ROCA**

Kaixo Berako herri osoari.

Patricia Arteaga dut izena, ekainaren 2an Beran lan-istripu larria izan zuen Correoseko langilea naiz.

Gutun honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiet, jendaurrean, egun horretan lagundu zenidaten pertsona guztiei: Berako suhiltzaile boluntarioei, anbulantziari, Berako Osasun Zentroko mediku eta erizainei, Oronozko suhiltzaileei eta 112ko helikopteroari. Eta, bereziki, hilabete honetan, ZIUen egon naizen bitartean animo eta maitasun mezuak igorri –nire senarrak egunero ematen zizkidanak–, lagundu didaten guztiei.

Ez dut inoiz ahaztuko hainbeste jenderen laguntza jaso izana, ezagutu gabe beren arnasa zintzoa bidali baitidate, eta ziur nago lagundu egin didala errekupe-razioan, zeina, nahiz eta oraindik urrun egon, iritsiko den.

Beti eramango zaituztet nire bihotzean.

COVID-19tik haratago**ESTEBAN IRUSTA MALLEA**

Koronabirus hau zorigaiztoa izan da denontzat, baina bereziki hildakoak izan dituzten familientzat. Baita gaixotasuna jasan dutenentzat ere, nahiz eta gaingitu. Une honetan, kontrolpean dagoela dirudi eta lasaitasun ederra sentitu dugu. Une batean, beldurra zen nagusi, eta aginduak betetzen saiatu ginen. Baina orain lasaiegi ez ote gabiltzan beldurra hedatzen ari da.

Gizatiar izaerak dio guregan bizi ez duguna ez dugula benetan sentitzen. Eta izurri- te honekin hori gertatzen ari dela iruditzen zait. Geure inguruan ez badugu gaixotasun honekin inor ezagutu, zailago egiten zaigu bere larritasunaz jabetzea. Oso bestelako iritzia daukate gaixotasuna beraiek edo etxekoren batek pairatu dutenek. Hauentzat esperientzia oso gogorra izan da. Eta gogorra izaten ari da lanik gabe gelditu diren langileentzat.

Birusa ez da desagertu, eta denok jarraitzen dugu arriskuan. Etorkizunari begira,

galdera asko daude airean. Koronabirusa indarrean egon denean, 'aldaketa' hitza denon ahotan zegoen. Askok esaten zuten gure gizarte-bizitza etorkizunean ez zela izurrite honen aurrekoa bezala izango. Baina ideia hori uste baino bizkorrago bazterten ari gara. Askatasun batzuk eman dituztenean, aurreko ohiturak, inoiz baino amorru gehiagorekin, berreskuratu ditugu. Gazteak hasi dira berriro botiloak eta gaupasak egiten; helduak oporrak herrialde exotikoetan amesten; alderdi politikoek ez dute atsedenik hartu beraien arteko betiko ika-mikekin. Koronabirusaren garaian nabarmendu da gizakion ezaugarri bat: errua besteena izatea, agintariena, batez ere. Beraiengandik, beti espero ditugu soluzioak, egoera berezietan, batez ere. Mundu guztiak zekien zer egin behar zen izurrite honi aurre egiteko, jakin behar zutenek izan ezik.

Pentsaera honek suposatzen du, bate-tik, agintariak perfektuak izatea, eta hori betetzen ez denez, hor agertzen gara jakintsu arazo guztientzako soluzioekin. Kritika behar-beharrezkoa da. Kritarik ez balego, gizarteak ez luke modu egokian aurrera egingo. Baina aldaketari buruz hain- beste idatzi eta hitz egitean, etxe barruan egon garenean, badirudi gogoz kontrako aldaketei buruz aritu garela. Galdera da, ea koronabirusa gaingitu ondoren, ez ote dugun aldatu behar dar-magun bidea. Hausnarketa sakona egin beharrean gaude orain arteko martxa ondo ikusten ez badugu. Ohitura pertsonalak aldatzea zaila egiten zaigu, eta gizarte mailan askoz zailago. Dena den, koronabirusaren ondorengo garaiaz pentsatzen ari gara, oraindik guztiz desagertu ez denean, eta ezin ditugu ahaztu, munduan zehar pairatzen ari diren herrialdeak. Ondorioak oso larriak izaten ari dira eta ikusteko dago zenbaterainokoak izango diren dena bukatzean.

Sakabanaketa/urruntzea ekologiarene aurkakoak**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ.**

Preso guztien (politikoak, prebentiboak, sozialak, kontzientzia-presoa) sakabanaketa eta urruntzea berehala bukatu beharko lirateke, eta ez arrazoi bakar batengatik, ez, baizik eta hamaikarengatik.

Ikus dezagun: Frantziako eta Espainia-ko estatu ankerren uztarri astunen menpean bizi diren preso guztiek, esan dudan bezala, zio asko dute sakabanaketaren eta urruntzearen aurka jarduteko, eta baita gizarte arruntak ere. Zergatik? Bada, lehenik eta behin, estatu horiek beraien legeen kontra ari direlako, presoak ez uztean egoten beren etxeetatik hurbil. Bigarrenik, familiei eta hurbileko pertso-nei jartzen dietelako bidegabeko zigor erantsia. Hirugarrenik, horrek egundoko arriskua dakarrelako familia eta lagun- bizerako: heriotzak, zauriak, beldurrak, tentsioak, estresak eta abar; horrek guz- tiak, presoek ere kalte egiten die, batere merezi gabe, epaiak ez baitie halako zigor- rrik jarri. Laugarrenik, zigor ekonomiko latzak jartzen dizkietelako familiei eta beren lagunei, modu bidegabe berean, hau da, sententziak agindu gabe. Bosgarrenik, haur motxiladunei egundoko kalbarioa jartzen dietelako, inolako erru- rik eta justifikaziorik gabe.

Laburbilduta, ekintza eta jokabide horie- tan berebiziko giza eskubide urraketak gertatzen dira, inolako arrazoi eta zen- tzurik gabe. Baina, hala eta guztiz ere, eta, gezurra balirudike ere, oraindik badaude beste bi arrazoi handi eta sendo, preso guztien urruntzeari eta sakabana- ketari bukaera emateko, eta, hain zuzen ere, bat, ekologiarena da. Garai honetan, klima aldaketaren aurka, gobernuak hain- beste neurri hartu beharko lituzketenean, zer eta, presoen senitartekoak eta adis- kideak behartzen dituzte milaka eta mila- ka kilometro egitera, horrek dakarren erregai fosilen kontsumo izugarriarekin, eta, ondorioz, gas kutsatzaile emisio gai- tzarekin, esaterako, karbono dioxidoa; hortaz, klima larrialdia erabat areagotzen

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen- deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

duena. Hitz gutxitan, guztiz kaltegarria eguratsarentzat, eta ekologia-sistemaren kontrakoa. Eta bigarren arrazoia, osasunarena, alegia, Covid-19 gaitzaren izurrittea oraindik erabat bukatu ez denean, presoan ahaideak eta beren inguruko pertsonak behartzen ari dira milaka eta milaka kilometro egitera, horrek dakarren kutsatzeko eta kutsatuak izateko arrisku guztiarekin.

Beraz, eta bukatzeko, gainerako beste arazo guztiez gain, osasun eta ekologia zioengatik ere, eman diezaietela bukaera preso guztien urrutiratzeari eta sakabantzeari!

HEMEROTEKA



«Ez dugu ukatuko sanferminetan lagunartean egoteko aukerarik izan ez dugunik, baina otordu guztiak etxean egin ditugu, musikarik ez da izan kanpoan, bisitaririk ere ez... Arraro samarrak izan dira, nahiko deskafeinatuak, baina tartetxoak hartu ditugu eta gustura, aspaldi ikusi ez genituen lagunekin egoteko aukera izan dugulako (...) Aipatu izan da Lesakak duen biztanleria kopurua hamar aldiz biderkatzen dela sanferminetako asteburuan. Hori inbasio gisa hartu izan dugu baina denak ongie-torriak dira. Gainera urtean behin izaten da eta berezia izaten da».

AMAIA ENETERREAGA | LESAKA |
XORROXIN IRRATIA. 2020.07.09

BOTA BERTSOA

JUAN TELLETXEA URROZ
DONEZTEBEKO BERTSOZALEA

Besta gutxi oroitzen asko

Doinua: Aita izena kanta beharra



*Bertso pare bat kanta beharko
lenagoko parrandari
egia esan garai batean
egin bainitun ugari
larunbatero lagun artean
hainbat bazkari ta afari
afal ondoan poteak hartzen
hiru lau buelta herriari
gero gosari eder batekin
bukaera eman gauari.*

*Gaur egungo egoera honek
parrandak ditu mugatu
hala ta guztiz esango nuke
asko zirela aldatu
lengo giroa ta oraingoa
ezin dira konparatu
hobea zein den ez dakit baina
nik lengoa aukeratu
ta gazteari esango nioke
ongi pasa ta ez pasatu.*

GOITI ETA BEHEITI



Zaborra Alkaiagako industrialdean

Zoritxarrez, maiz agertzen da zaborra behar ez den tokian: zelaietan, erreka bazterretan, karrikako edozein izkinetan... Zerrenda luzea da. ТТИП-ТАПАКО irakurle batek Alkaiagako industrialdean hartu duen irudi hori bertze adibide bat gehiago da. Bere hitzetan, «besta egin eta gero» utzitako «itxura» da. Halakorik ez litzateke errepikatu behar, ez Alkaiagan ezta bertze inon ere.



«Egun emakume nekazariak ez dira soilik nekazarien andreak»

AMAIA ITURRIRIA BARRENETXE GARTZAINEN BIZI DEN ABELTZAIN AZPILKUETARRA

Nekazari inguruan hazia izan bada ere, duela urte bat eta erdi pausoa eman zuen arte, ez zuen inoiz lehen sektorean lan egina. Gaur egun, behor, behi eta ardiekin dihardu eta horixe du ogibide

G. PIKABEA | BAZTAN

Zuzenbidea ikastea zuen amets eta helburu horrekin hasi zituen ikasketak. Geroztik egin duen bidea, ordea, bertzelakoa izan da. Ikasketekin gustura ez eta, «denbora batez uztea» erabaki zuen, «zer nahi nuen pentsatzeko». Ordurako ostalaritzan hasia zen, «asteburuetan eta lankideen oporrak, jaiegunak... egiten» eta gustua ere hartu zion ostalaritzari. Baina «lurrarekin eta inguruarekin lotutako bizimodua» egiteko nahiak bertzelako pausoa ematera bultzatu zuen. Hala hasi zuen baserri munduko ibilbidea Amaia Iturriria (Azpilkuea, 1994).

Zergatik erabaki zenuen azien-dekin hastea?

Ostalaritzan gustura ari nintzen, lan polita nuen, baina Jon bikotekidea eta biok maiz solastatzen ginen lurrarekin eta gure inguruarekin lotura zuen bizimoduaz. Bere familia betitik baserri bizi izan da, baina orduan bere aita erretiroa hartuta zegoen eta amak etxeko eta kanpoko lanak tartekatzen zituen. Etxeko azien-dekin segitzea genuen buruan, baina ez genuen argi nola. Bertze baserri batzuetako esperientziak ikusi genituen eta ideiak gustatu eta forma ematen hasi ginen. Hasteko, Jonen gurasoei ongi iruditu zitzairen etxeko martxarekin segitzea eta Juan Martin, Jonen aita, niri ofizioa erakusteko prest agertu zen. INTIArekin harre-

manetan jarri eta gure ideiarekin berri eman genien. Nekazari gazteendako dauden dirulaguntzak, Nekazaritza Politika Bateratua... azaldu zizkiguten eta proiektua bideragarria izaten ahal zela ikusi genuen. Lan horretan segitzekotan inbertsioak egin behar genituen: nabea zaharberitu, belaiak hetsi... Eta aldi berean, horretarako bietako batek lana utzi beharko zukeela ikusi genuen. Nire lanean diru-sarrerak eta baldintzak eskasagoak zirela ikusirik, lana utzi eta abeltzain gisa hasi nintzen modu profesionalean.

Erabaki zaila izan zen?

2018ko abenduan utzi nuen ostalaritzako lana. Pena eman zidan, baina gustura egin nuen, baserriari eskaintzeko eta ikasteko denbora gehiago izanenuela jakinik. Ilusio handiarekin eman nuen pausoa, eta inguruko babes handia izan nuen, bai nire familiarena bai-

ta Jonen familiarena ere. Berreziki Jonen aitak ordu aunitz pasatu ditu niri erakusten.

Gaur egun, zertan ari zara?

17 behor, 15 behi eta 120 ardi ditugu. Gure gogoa bildoskia, behorkia eta aratxekia loteetan banatu eta haragiaren salmenta zuzena egitea da. Modu horretan errentagarriagoa izanzen delakoan, baina baita prozesu osoa gure esku egoteak asetzen gaituelako ere. Gure ingurukoei kalitate oneko elikagaiak eskaintzea da helburu nagusietako bat. Aldi berean, ardiak jetzi ere egiten ditugu, eta esnea saldu egiten dugu.

Zergatik ekoizpen ekologikoa?

Argi genuen gure lan egiteko modua ekologikoa izanzen zela, gure pentsatzeko eragatik: kudeatzen ditugun lurrek jasaten ahal duten azienda kopurua baino handiagoa ez edukitzea, pentsu garbia erabiltzea, beharrezkoa ez den kasuetan baino ez ematea

tratamenduak, aziendak kanpoan edukitzea neguko pare bat hilabetetan izan ezik... Baina erosleengan pentsatuz erabaki genuen zigilua lortzen saiatzea. Azken finean, ekologikoaren zigiluak haragia baldintza jakin batzuen arabera ekoitzia izan dela ziurtatzen du. Orain, bi urteko trantsizio epean gaude. Bi urte horietan kudeaketa ekologikoa egin beharko dugu baina ez dugu zigilurik. Dena ongi eginez gero, hirugarren urtean ematen digute zigilua.

Aunitzetan aditzen da zaila dela baserri bizi bizitzea. Zer diozu?

Aunitzetan erraten da baserri bizi bizitzekotan azienda aunitz edukitzea beharrezkoa dela. Horrek ikaragarriko inbertsioak egitera behartzen du jendea, animaleko nabeak, makineria... Horri buelta ematea aski zaila da. Gure kasuan, ez gara deusetik hasi, aitzinekoek egin duten lanari esker horri segida emanen diogu. Seguruenik aitzinekoek utzitako lur, azienda edota makineriarik gabe ez ginateke saltza honetan sartuko, egin beharreko inbertsioak ikaragarriak izanzen liratekeelako. Gure apustua azienda gutiagorekin saltzerakoan dauden bitartekariak kenduz etekin gehiago ateratzea izanzen da, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena sortuz. Badakigu batzuetan aski ongi funtzionatu duela eta gure kasuan hala izatea espero dugu.

Krisirik bada zure sektorean?

Bai, noski, honetan segitzen duen gaztea izateagatik elkarrikitasuna egitea adierazgarria da, normala ez den seinale. Herrietako baserriak husten ari dira eta segitzen dutenek normalean animaleko etxaldeen segitzen dute. Iraganean izan dugun baserri bizi biziaren ekonomia ez da egungo abeltzain gehien iruditegiaren parte. Baserriko lanarekin segitu beharrean, bertze lanen bat hartzearen oinarrian hainbat faktore daude, baina horien artean produktuen prezio



Ardiekin lan egiteaz gain, behorrek eta behiek ere aritzen da Iturriria.

apala dago. Eta prezio apal horiek konpentsatzeko ematen diren dirulaguntzak nork hartzen dituen ikusi beharko litzateke. Bertzetik, beti erraten den bezala, lan hau arras lotua da. Zure negozioa izateak hori du, ez duzu asteburu liberrik edo oporrik. Gure kasuan, Jonen gurasoekin moldatzen gara egun libreak hartzeko. Baina izaki bizidunekin lan egitean, ezin dituzu ortziraletan itzali eta astelehenean piztu. Egun guzietan prest egon behar duzu beraien beharrak asetzeko. Horrek konpromiso handia eskatzen du eta ulergarria zait hartu nahi ez izatea, nahiz eta bertze lan batzuek ez dituzten onura aunitz izan.

Zein dira lehen sektorean lan egitearen alde onak eta txarrak?

Nire kasuan, alde onetatik hasita, urteko sasoiaren arabera hainbat lan eta egunerokoa aldakorra izatea aunitz gustatzen zait, baita eguraldiaren arabera egunak antolatzea ere. Inguruan pasatzen denarekin, egunen zikloekin lotua egotea arrunt osasungarria iruditzen zait, bai mentalki baita fisikoki ere. Gainera, nire kasuan, aziendarekin lanean aritzea gustukoa izanik, nola erditzen diren, handitzen diren, beraien arteko harremanak... Hori dena ikustea ikaragarri maite dut. Lan honek,aldi berean, Baztanen bizi eta lan egiteko aukera ematen dit, baita euskaraz bizitzeko aukera ere. Lanagatik harremana dudan jendea normalean euskaldun zaharra da eta nire hizkuntza maila hobetzen ari dela sumatzen dut. Alde txarrei dagokionez, berriz, gure negozioa gure ardura izateak sortzen duen lotura batzuetan pisutsua izaten da. Egun txarrak ere izaten dira, nekatua zaudelako, edo ez ongi egonik ere laneko kontuak egin behar direnean. Gainera, hor daude ekoizleei paratzen dizkieten prezio apalak. Lanaren balioa prezioaren arabera bada, zenbaitetan iduri du gure lana ez dela baltore baloratzen.



Amaia Iturririak 2018ko abenduaz geroztik abeltzaintza du ofizio.

Emakume izateagatik egoera zailagoa da?

Nire kasuan, emakume izateaz gain, gaztea eta esperientzia gabea naiz. Hortaz, bai, zailagoa da. Garrantzitsua da ondoan esperientziadunak izatea eta ahal den guztia galdetzea eta ikastea. Emakume izateari dagokionez, mundu hau orokorrean gizon mundua dela irudi du kanpotik. Bertze sektore aunitzetan bezala, kanpora begira egon direnak normalean gizonak izan baitira. Baina etxeetan beti egon dira emakumeak lanean. Horregatik, zenbait egoeratan ez gaude emakumeak egotera ohituak. Baina iruditzen zait hori aldatzen ari dela eta nekazari emakumeak gero eta ahots gehiago hartzen ari direla, ez direla nekazarien andreak bakarrik. **Baserrri munduak badu feminismoaren beharrik?**

Gizarte osoak du feminismoaren beharra. Egia da baserriko lan aunitz generoaren arabera banatuak daudela eta horrek

«ZENBAITETAN IDURI DU NEKAZARION LANA EZ DELA BALORATZEN»

aunitz mugatzen duela. Hori ere gizartean edo norbanako gisa landu beharrekoa dugu, egiten ditugun zenbait gauzetan zergatik lotsatzen garen edo ez garen seguru sentitzen eta aldiz, bertze lan batzuk ikasiak sortu bagina bezala, natural, egiten ditugun. Baita ondokoa epaitzerakoan ere, aunitzetan gelditu eta hausnartu beharko genuke gure moralaz beren arabera eraikia dugun. **Zer aldatu beharko litzateke nekazaritzan eta abeltzaintzan lehen sektoreak aitzinera egin dezan?** Iruditzen zait egun ez dugula gure inguruan sortzen den elikadura aski baloratzen. Ez gara ohartzen zeinen garrantzitsua den nekazariengingurumena zaintzen eta paisaia mantentzen egiten duten lana. Idealizazioetan erori gabe, nekazaritza praktika txarrek kontrako ondorioak ere izaten ahal baitituzte, ingurumenean kalte ikaragarriak eraginez. Hirietako eta landa eremuko jendearen artean hartu-eman

«BASERRIKO BIZIMODUA DESAGERTZEAR EGONEN DA»

estuagoa beharko genuke elkar ulertu eta baloratzen hasteko. Lehen sektoreko ekoizleen arteko saretzak ere garrantzitsuak dira ikasi eta dinamizatzeko, baita gure interesak babesteko ere. Hor dugu, adibidez, Erdizen egin nahi duten harrobia. Proiektua gelditu zela irudi bazuen ere, berriz ere martxan paratu nahi dute eta horrelakoak geldiarazteko elkartasuna beharrezkoa da. Hala ere, lehen sektorean arazo handia da ekoiztutakoa nola, nori eta zein prezioan saltzen dugun. Bertzalde, orain arte izan dugun eta izaten ari garen inportazio-espazio dinamika ekologikoki jasangaitza da, eta bertako ekoizleendako aski kaltegarria. **Nola ikusten duzu etorkizuna?** Berriki sartu naiz eta etorkizuna aski positiboki ikusten dut, bertzela, ez nintzen hasi izanen. Hala ere, etorkizunean dagoeneko gainbeheran dagoen baserriko bizimodua desagertzeko bidean egon dela uste dut, salbuespen bat kenduz. Hori galera handia izanen da. Jendartean inguruarekiko kontzientzia sortzeko aukera dugu nekazariok eta jendartean badago bertan ekoizten dena bertan kontsumitzearen inguruko kezka.

Zuhurtziaz baina aitzinera eginez

Koronabirusak egunerokoa hankaz goiti paratu zien eta egoerara egokitzeke eginahal berezia egin behar izan dute Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroan. Itxialdia gaindituta, «poliki-poliki» eta «zuhurtzia handiz» martxa hartzen ari direla adierazi diote TTIPI-TTAPARI

G. PIKABEA | ELIZONDO

Koronabirusak «erdiz erdi» eragin die, eguneroko martxa goitik beheiti aldatzeraino. Aunitz izan dira pandemiak agerian utzi dituen ondorioak, eta Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroan ere bada-kite zer den hori. Ez dute koronabirusaren positibo eman duen erabiltzailerik izan, eta alde horretatik, badute kontent egoteko arrazoirik, baina egun batetik bertzerera dena aldatu zitzairen, bai erabiltzaileei baita langileei ere. Erabiltzaileak Elizondoko karriketan barna egiten zituzten itzulirik eta bisitarik gabe gelditu ziren eta zentro barneko martxa ere aldatu behar izan zuten. Langileek, berriz, zerbitzuak indartzeko 12 orduko lanaldiak hasi zituzten.

Psikiatria eta psikogeriatria ataletan banatuta, guztira 158 lagun bizi dira Elizondoko zentroan –horietako bakoitza bitan banatua dute–: buruko gaixotasunak, ezgaitasun intelektualak, nortasun desorekak, eskizofrenia, depresioak dituztenak... Laura Galan Jimenez zentroko psikologoaren arabera, «egoera zaurgarrian dauden erabiltzaileak» dira.

Koronabirusaren ondorioz, errotiko aldaketak egin behar izan dituzte. Alarma egoera ezarri baino astebete lehenagotik hasi ziren lanean, eta «etor zitekeenaren beldur» erabiltzaileekin tailerrak egiteari ekin zioten, «zer gertatzen zen azaldu, eta higie-pautak eta segurtasun neurriak barnera zitzaten». Horren ondorioz etorri ziren gainerako al-

daketak: «erabiltzaileek kanpora ateratzeari eta bisitak jasotzeari utzi zioten eta horren ordez, bideodei bidez bermatu genuen senitartekoekin harremana. Ez da gauza bera baina... Barnean, berriz, espazio berean jende aunitz ez elkartzeko eta gisa honetara, birusaren hedapena saihesteko, jantokiko ordutegia bikoiztu genuen. Bi jangela ordutegi ezarri eta jateko espazio gehiago egokitu genituen. Bide beretik, jardueretarako eremu gehiago prestatu eta erabil-

tzaileak zortzi laguneko talde-tan banatu genituen».

Langileek ere agudo hartu zituzten neurriak. Alde batetik, «erabiltzaileak barnean egonda, birusaren transmisio bidea gu, langileak, izan gintezkeela ikusita, lehenbailehen FFP2 maskarak, pantailak, hasieran eskularruak, egunero garbitzen genituen uniformeak... erabiltzen hasi ginen. Zentrora sartu eta ateratzean tenperatura hartzen ziguten eta esku eta oinen garbiketa zaindu genituen». Bertzetik, lan txandak



Laura Galan psikologoa ezkerrean eta Iñaki Gorritz erabiltzailea eskuinean.



Koronabirusaren harira, Benito Menniko langileek esfortzu handia egin dute.

aldatu zituzten: «asteko egun guztietan, 12 orduko lanaldiak egiten hasi ginen, erabiltzaileak ongi artatuak izan zitezten. Etengabe eurekin lanean aritu gara alarma egoerak sortu dituen aldaketa guztietara ahalik eta hobekien egokitzeke».

Zentrotik kanpora ateratzeko debekuari atarian egindako itzuliekin erantzun zieten; «eskerrak lorategi eremu zabala dugun eta erabiltzaileek paseoak eman ahal izan dituzten», dio Galanek. Gisa berean, jardueren eskaintza zabaldu zuten. «Covid-19ari buruzko tailerrak egunero eskaintzen hasi ginen, eskuetako higie-pautak eta segurtasun tartea zaintzearen, adiskidetasun keinuak saihestearren, eskuen ordez ukondoarekin agurtzearen edota zigarroa edo kafeak ez partekatzearen garrantziaz ohartarazteko». Gehiago ere bai: «babes psikologikoa eskaintzeko tailerrak egunero egiten hasi ginen, egoerara egokitzeke senti zezaketen beldurra, ziurgabetasuna edota antsietatea kudeatzen laguntzeko».

Hortik aparte, «bertzelako inizatiba aunitz» egin omen zituzten. Konparazio batera, «Dena ongi aterako da mezuarrekin eta ortzadarraren irudiarekin pankarta egin eta zintzilikatu genuen, erabiltzaileek eta langileok bideo klip bana ere egin genuen, kirol jarduerara bultzatu genuen...».

Konfinamendu garaiko erantzun ona

Aldaketa handiak eta erantzuna ere neurri berekoa. «Erabiltzaileen erantzuna arras ona izan da. Babesa eskainiz eta komunikabideetatik jasotzen zuten informazioa eta sarritan ongi interpretatua izan ez dena argituz egoera eta arriskuak ongi ulertu eta arauak onartu zituzten. Ez ziren inorentzat errazak eta eurentzat guttiago». Bide horretan, ordea, lantaldearen erantzun «bikaina eta aparta» nabarmendu ditu: «denok arras ongi erantzun

dugu». Hala ere, onartu digu, «denbora pasatu ahala, giroan neke fisikoa eta psikologikoa nabaritu» dutela, eta «oporren beharra» sentitu izana «etor daitekeenari baldintzarik onenetan aitzin egiteko».

Eta ondorengo kezka

Galanen hitzetan, itxialdian izan ez zuten kezka orain sortu zaie: «arriskurik handiena orain ikusten dugu, herrira ateratzen hasi direlako, bisitak jasotzen hasi direlako eta egoera ez delako konfinamendu garaian bezain kontrolatua». «Zorioneko» sentitzen dira oraingoz kasu positibo bakar bat ere izan ez dutelako, baina etorriko balitz «kontingentzia plana prest» dutela aitortu digu: «osasan baliabideekin hornitutako gelak prestatuak ditugu, positiboak bakartuta egon daitezten, eta zentroan badira mediku eta gainerako profesionalak gaixoak behar bezala artatuak izan daitezten». Hori, ordea, handik edo hemendik saihestu nahi dute eta hortaz, ahalik eta gehien zaintzen ari omen dira, «Nafarroako Gobernuaren protokoloa jarraituz» eta «pausoak poliki-poliki emanez». Azaldu digunez, «karrikara ateratzen hasi baino lehen, talde ttikitari entrenamendu gisako bat egin genuen, kanpoan izan diren aldaketen berri jaso zezaten. Izan ere, martxoaren 13az geroztik kanpora atera gabeak ziren eta denda batera sartzeko edo terraza batean egoteko

«KONFINAMENDU ONDORENAK ZAILTASUN GEHIAGO SORTU DIZKIE»

«BURUKO OSASUN ARAZOAK DITUZTENEN KOPURUA IGO EGINEN DA»

LAURA GALAN, BENITO MENNI

«Normaltasuna etorriko dela erraten dute baina ez da ailegatzen»

ÍÑAKI GORRIZ FERRER ELIZONDOKO BENITO MENNI OSPITALE ZENTROKO ERABILTZAILAIA

Duela bortz urtetik Benito Menni zentroko ezgaitasun intelektuala dutenen unitatean dago Iñaki Gorriz 27 urteko iruindarra. Aitortu digunez, «arras kontent» dago eta Elizondoko daramatzen arteak «bizitzako urterik onenak» izaten ari omen dira. Areago, esker oneko hitzak ditu baztandarrendako, «beso zabalik hartzeagatik».

Gaur egun, berriz hasia da karrikan hainbetez gustatzen zaizkion bueltak egiten, «paseatzera edota kafea hartzera joaten naiz egun batean bai eta hurrengoan ez, txandaka». Baina osasun alarma tarteko, asteak eta asteak pasatu ditu hori egin ezinik. «Egun batetik bertzerera karri-



Iñaki Gorriz.

kara atera ezinik eta bisitarik gabe gelditu ginen», eta tarte horretan, «batzuetan gaizki» pasatu zuela onartu digu: «emozioak eta dena nahasten dira eta batzuetan gogorra

izan da. Beldur pixka bat ere sentitu izan dut, ziurtasun ezarekin». Gogorrena, hala ere, «egunerokoa alde batera uztea» egin zaio, baita «jende aunitz hiltzen dela aditzea» ere. Baina egoerari buelta eman nahian, zentroko jardueretan gehiago parte hartu du: «garbiketari, sukaldaritzan, eskulanetan, baratzetan, informatikan, bidaiaren klubean, erlaxazioan... Aldizkari bat ere egin genuen». Gisa honetara, «arras seguru» sentitu eta sentitzen dela dio. Edozein moduz, argi utzi du lehengoa amestuz segitzen duela: «normaltasuna noiz etorriko den desiratzen nago, etorriko dela erraten dute baina ez da ailegatzen».

neurriak zein diren ikasi behar izan zuten. Horiek ikasi eta baimena eman orduko hasi ziren ateratzen, poliki-poliki. Orain, neurriak betetzeko gai direnak bakarrik ere ateratzen dira eta bertze batzuk taldean».

Ziurtasun eza ere sumatzen du erabiltzaileen artean: «'Eta gu noiz?' galdetzen dute. Oro har, herritarrendako diren pautak hor daude, baina bertzelako erritmoa dute zentroetan bizi direnendako neurriek. Horrek «ziurtasun falta» sortzen diela kontatu digu psikologoak eta, aldi berean, «zailtasun gehiago». Horregatik dio, «konfinamendu arintzeko garaiak ondorio gehiago utzi dituela eurenengan».

Bisiten harira ere solastatu da: «orain, bisitak hasi direnean, erabiltzaileek gehiago eskatzen dute. Konfinamendu garaian, deus ez zegoenean, ordu bateko bisita jaso ahal izatea handia izan zen, baina orain, ordu bateko bisita dutenean, ordu-tegi aldetik mugarik ez duten

bisitak nahi dituzte, eta gero etxera joan nahi dute...». Jarrera hori «normala» dela uste du, baina argi du «zuhurtzia handiz» jokatu beharra dagoela, «egoera ezohikoa delako eta zentroan kutsatu bat izateak taldean izan dezakeen ondorioa garrantzitsua izan daitekeela». Hala, «etengabe azalpenak emanez» egoera zein den ulertarazten saiatzen direla gaineratu digu, eta «gutti goiti-beheiti entenditzen dute».

Buruko osasun gaitzen igoera

Zentrotik kanpo, ezohiko egoera honetan, «buruko osasun arazoak dituztenen kopuruak goiti» eginen duela sinetsita dago Galan. «Lehenago izan diren krisi ekonomikoetan zer gertatu den ikusi izan dugu. 2007koan, adibidez, buruko osasunari lotutako arazoak ugaritu ziren eta orain gauza bera gerta daiteke». Eta ondorio horiek «bai kaltetuak izan diren artean, bai senitartearen artean baita lehen lerroan

eta arras baldintza gogorretan lanean aritu diren langile soziosanitarioen artean ere» ager daitezkeela iruditzen zaio. Osasun arloko profesionalen kasuan, «halako egoeratan lan egin eta arriskua hain hurbiletik ikusi ondotik, zaila da hori guztia asimilatzea», erran digu. Baina koronabirusa tarteko senitartekoren bat galdu dutenek kezka sortzen diote, «jendea azkar eta egokiak ez diren baldintzetan hil da, eta aunitz izan dira agurtu gabe eta dolua gainditu ezinik gelditu direnak. Horrek, bistan denez, ondorioak uzten ditu, bereziki antsietate arazoak, baina baita depresioak ere».

Horregatik «garrantzitsua» iruditzen zaio behar denean, «laguntza psikologikoa eta psikiatrikoa eskatzea» eta horren harira, «Nafarroako Gobernuak osasun arloko profesionalendako zein herritarrendako zabalik dituen telefono bidezko arreta zerbitzuak hor daudela» oroitarazi du.

Zaindu maite duzun hori...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Kalko ustelak

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Badira erdararen interferentziaz-edo berriak diren erabilera batzuk. Aldi honetan soziatiboko esapideak ekarri ditugu Euskararen Txokora, hau da, '-ekin' atzizkia dutenak.

-*Amaitu/bukatu/akitu* aditzarekin kalko okerrak egiten dira maiz, espainieraz '*acabar con...*' edo frantsesez '*en finir avec...*' esapideen eraginez.

-*Arrazakeriarekin *amaitu/bukatu/akitu* behar da
> **Arrazakeria baztertu behar da.**

-*Gai honekin bukatzeko...
> **Gai hau bukatzeko...; Gai honekikoak egiteko...**

-*Afariarekin *bukatu zuen* > **Afaria bukatu zuen.**

- *Aurkitu* aditzarekin ere (espainieraz '*encontrarse con...*' edo frantsesez '*être/se trouver en présence de...*') kalko okerrak egiten dira:

-*Sarritan, talde heterogeneoekin aurkitzen gara geletan > **Sarritan, talde heterogeneoak (aurkitzen) ditugu geletan.**

-*Mendira joan eta jende askorekin aurkitu ginen > **Mendira joan eta jende asko ikusi genuen.**

-*Asmatu, jarraitu, hautsi...* Aditz horiekin ere berdin gertatzen da:

-*Ez dakit nola asmatzen duzun gonbidatuaren gustuarekin > **Ez dakit nola asmatzen duzun gonbidatuaren gustua. Ez dakit nola igartzen/antzematen diozun gonbidatuaren gustuari.**

-*Lanarekin jarraitu du serio-serio > **Lanean jarraitu du serio-serio (ZERTAN). Lanari jarraitu dio serio-serio (ZERI).**

-*Topikoekin hautsi beharra dago > **Topikoak hautsi beharra dago.**

- *Hil* aditzaren kasuan, *-ekin hil* okertzat ezin jo bada ere —hizketan ez da arrotz, eta idatzian ere aurki daitezke adibideak—, Euskaltzaindiaren arabera, aukeran egokiago da *-z hil* (erran daiteke *-k jota hil* ere):

-?Eritasun kardiobaskularrekin jende gehiago hiltzen da minbiziarekin baino > **Jende gehiago hiltzen da eritasun kardiobaskularren ondorioz minbiziaren ondorioz baino / eritasun kardiobaskularrez, minbiziz baino / eritasun kardiobaskularrengatik, minbiziagatik baino.**

Nola erran?

Kontrakoa uste badugu ere, gure eskualdean erabiltzen ditugun hitz gehienak euskara batuko formak ere badira, eta hortaz, bultzatu eta erabili beharrekoak. Maite Lakarrek *Baztango Mintzoa* liburuan bildu zituen hainbat adibide bildu ditugu hemen. Lot ezazu bakoitza bere bikotearekin eta erabil ditzagun gureak!

Noski	Ja
Lapurtu	Paratu
Hozka	Heldu
Eseri	Ausiki
Erraz	Arrunt
Ailegatu	Hasmenta
Arras	Doike
Hasiera	Aise
Ahaztu	Ebatsi
Deus	Atzendu
Jarri	Jarri

Bosgarrenez balkoi lehiaketa prest du Larun Haizpek

Uztailaren 29an jakinaraziko dituzte irabazleak eta uztailaren 31n egingen dute sari banaketa ekitaldi xumea

TTIPI-TTAPA

Gure herria lorez bete lelopean beratarrei balkoiak apaintzeko eta zaintzeko deia eginez, aurten bosgarren edizioa beteko duen balkoi lehiaketa antolatu du Larun Haizpe zerbitzu, merkataria eta ostalarien elkarteak, Udalarekin ekarlanean. Uztailaren 6an hasita uztailaren 29ra bitarte epaimahaiko kideak herrian barna ibiliko dira eta egun berean jakinaraziko dute zein diren irabazleak.

Larun Haizpeko kideen hitzetan, «herrian hagitz errortuta dagoen ohitura da» balkoiak apaintzearena eta hori «sustatu» nahi dute. «Urtero ikusten dugu nola edertzen diren balkoiak». Ahalegin hori «saritzeko» helburuarekin uztailaren 6tik 29ra balkoien lehiaketa egiten ari dira.

Herria borts eremutan banatu dute: Alzate; Eztegara, Legia eta Kanttonberri; Bera; Agerra eta baserriak. Elkarte hiru kidek eta Berako Udaleko bi kidek osatutako epaimahaiko ordezkariak gune horietan ibiliko dira.

Sari banaketa uztailaren 31n

Gune bakoitzeko saritu bat izanen da eta horien artean bi lagunentzako borts afari elkarte kide diren jatetxetan eta Larun Haizpeko kideen produktuez osatutako borts lote banatuko dituzte. Sariak uztailaren 31n Herriko Etxeko Plazan 20:30ean egingen den ekitaldian banatuko dituzte.

Larun Haizpek ohar bidez jakinarazi du lehiaketatik kanpo gelditu direla gaur egun elkarte zuzendaritza batzordea osatzen duten kideak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Auzolana edo 'pagina' Eltzaurdia auzoan

Auzoko zuhaitzetan abisua jarri eta auzolana (edo beti errankatu duten bezala, *pagina*) egin zuten uztaileko lehen larunbatean Eltzaurdia auzoan. Bide bazterrak sasi, lur eta belarrez garbitu zituzten. Udalak eskainitako merienda espero zutela ere aipatu zuten, baina ez zen halakorik izan.

Futboleko kinielak 422.530 euro utzi ditu Beran

Ez du Espainiako futbol kinielan hamabostekoa asmatu baina bai hamalau emaitza eta Estatuko Loteria eta Apustuen Erakundearen arabera, 422.530,80 euro jasoko ditu Beran zigilatutako boletoaren jabeak. Boletoa Berako Oroz dendan zigilatua izan da.

Berako XII. Txirringularitza Saria igandean

Gure Txokoa elkarteak hamabigarren urtez antolatutako Berako XII. Txirringularitza Saria egingen dute uztailaren 26an, igandean, 11:00etan, Bidasoa karrikatik abiatuta. 44 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute kadete mailako txirringulariek.



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



AUZOA GO!



Etxez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAn

OGITARTEKOAK
PLATERAK
HAMAIKETAKOAK
BAZKARIAK, etab.

ESKAERAK: www.auzoago.com · T. 948 63 15 09






Astelehenetik ortzirralera:
07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA



FRANDONEA, s.l.
FRUTAS DE BARCELONA

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 Atea 21-22 • BERA



Gazteendako auzolandegiak eginen dituzte

Gerra garaiko gotorlekuak garbitu, berreskuratu eta dokumentatuko dituzte langabetuek abuztuan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gazteriaren Institutuak antolatuta, hemezortzi eta hogeita lau urte arteko gazteei zuzendutako auzolandegiak eginen dituzte Beran abuztuaren 1etik 15era. *Muga gotortua Nafarroako Pirinioetan* izenburupean, gerra garaiko gotorlekuak garbitu, berreskuratu eta dokumentatuko dituzte.

Uda honetan, Covid-19ak sortutako egoera dela eta, ezin dute plazarik eskaini bertze Autonomia-Erkidego batzuetako auzolandegi programetan,

ezta atzerrian ere. Hala, Bera-koa izanen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak eskainiko duen auzolandegi bakarra.

Bortzirietan 30eko, 40ko eta 50eko hamarkadetan eraiki ziren gerrako gotorlekuetako bat garbitu, berreskuratu eta dokumentatuko dute. Mendiaren zulatutako galeria batek osatzen duen gotorlekua, eta, alderik alde zeharkatuz, aginte-postu gotortu bat izatea ahalbidetzen duen, 360 graduko panoramika batekin. Okalarreko bentatik sarbidea



Gotorleku bat garbitu, berreskuratu eta dokumentatuko dute gazteek.

KATALIÑENEN PRESO-ZELAIKO BARRAKOIAK ERE EGOKITUKO DIRA

eta hurbileko Kataliñeneko preso-zelaiako barrakoiaren hondakinak ere egokituko dituzte. Lana osatzeko, gotorleku horien guztien eraikuntzari, garaiko dokumentazioari, arkeo-

logia-erregistroaren oinarriko nozioei eta bisitei buruzko azalpenak jasoko dituzte. Lanaz gain, gozatzeko tartea ere izanen dute, ingurua ezagutzeko, aisialdiko hainbat ekintza izanen dituzte asteburuetan. Lekarozko gazte aterpetxean hartuko dute ostatu eta interesa dutenek 110 euro ordaindu beharko dituzte. Izen-emateko epea dagoeneko irekita dago juventudnavarra.es/eu webgunean.

ERREKALDE
o s t a t u a

**PLATERAK · PINTXOAK
BOKATAK · RAZIOAK
MENUA**

**BERTAN JATEKO EDO
ETXERA ERAMATEKO AUKERA**

T. 948 630 259 · BERA

xuga

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Alberto RETEGI

abokatu
abokatu

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

BERA

KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA
☎ T. 948 631 218
✉ joxemi@kateabike.com
🌐 www.kateabike.com

Uda berria "bizi" berria!

SCOTT **GIANT** **MERIDA BIKES** **ORBEA** **BH** **CANON**



Amak taldeak kontzertu polita eskaini zuen Altzateko plazan. UTZITAKO ARGAZKIA

Hezurbeltzak eta Erabatera taldeen kontzertuak datoz Uda Bizian

TTIPI-TTAPA

Goitiko argazkian ageri den Amak taldearen kontzertuaren eta Shakti Olaizola zirku konpainiaren *Baldin bada* emanaldiaren ondotik, segida izanen du asteotan *Uda Bizia* programak.

Larunbat honetan, uztailak 25, Hezurbeltzak taldeak kontzertua emanen du 19:00etan Merkatu Plazan.

Abuztu hasieran bertze zenbait ekitaldi antolatu dituzte besten seinale gisara. Hilaren Iean, Erabatera taldeak kontzertua emanen du 19:00etan Altzateko plazan. Abuztuaren

2an, Master Kutxabank txapelketako pilota partida jokatuko dute Eztegarra pilotalekuan 17:00etan: Urrutikoetxea eta Irribarria, Altuna III.a eta Imazzen kontra. Sarrerak salgai daude Agaraprentsan eta www.entradasfronton.com webgunean.

Abuztuaren 3an, Hueskako Oscense Pirotečniaren eskutik su-artifizialak botako dituzte Toki Onako patiotik, 23:00etan. Ondoko hiru larunbatetan kontzertuak eskainiko dituzte Mugaldekoak Band, Old School Funky Family eta Afrika Bibang taldeek.

OSTATU - JATETXEA
Itzea, 2 - 31780 BERA
948 631 271

Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechepare

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA, SAGARDOTEGI MENUA
KARTA, OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK...

T. 948 625 472 · Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Gestel[®]
zuntz optikoa
irradi-uhinak
4G

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



Bixkantxeneko plazan 'Matriuska' antzeziana eskainiko du Kamikaz Kolektiboak.

Kultur ekitaldiz gainezka abiatu da Udako Zikloa

Uztailaren 24an Muxikoak izanen dituzte Alkaiagan eta hilaren 30ean antzerkia Bixkantxeneko plazan

AITOR AROTZENA

Sorginxulo Lesakako kultur bilguneak udalaren laguntzarekin antolatuta, Udako Zikloa abiatu zen **uztailaren 19an**, Pettik Plaza Zaharrean egindako kontzertuarekin. *Manipulazio estrategiak* bere azken diskoa aurkeztu zuen musikari eta abeslari beratarrak. Ondotik, uztailean, abuztuan eta irailean bertze hainbat ekitaldi antolatuta dituzte.

Uztailaren 24an, Alkaiagan, Santiago besten seinalea izanen dute. Ortziralean,

19:00etan, Muxikoak izanen dituzte Jaiki Hadi taldearekin. Uztaileko egitaraua bukatzeko, **hilaren 30ean**, ortzegunean 22:00etan, *Matriuska* antzerkia egingen du Kamikaz Kolektiboak Bixkantxeneko plazan.

Abuztuaren 7an, ortziralean 18:30ean hasita, haurrentzako Altxorraren Bila kulturala izanen dute Plaza Zaharrean.

Abuztuaren 13an, ortzegunean, 19:00etan, Eltzeta Plazan, *Egur taupadak* txotxongilo antzerkia emanen du Ttipia Produkzioak taldeak.

Abuztuaren 21ean, ortziralean, 19:00etan, *Puxkak* dantza emanaldia eskainiko dute Led Silhouette, Unaiuna eta Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak Harriondoa kultur etxeko atarian.

Abuztuaren 23an, igandean, 18:30ean, Ameli ipuinen jostune ipuin-kontalaria izanen da Iturbena plazan.

Abuztuaren 28an, ortziralean, 20:30ean, bertso saioa eskainiko dute Xabier Silveira eta Unai Iturriaga bertsolariek Onin gaineko zubi konkordunean.

Abuztuaren 30ean, igandean, 13:00etan, Hurih bikoiteak kontzertua emanen du Koskilako iturrian.

Irailearen 4an, ortziralean, 18:00etan, Zahar Etxean emanaldia izanen du Txamukos Mariatxi taldeak. Egun berean, Plaza Zaharrean, 20:00etan, *Bakean dagoena bakean utzi* bakarrizketa izanen da Lan-kuren eskutik.

Irailearen 11n, ortziralean, 19:00etan plazatik hasita, kan-tu saioa egingen du Lesakako abesbatzak.

Irailearen 12an, larunbatean, 10:30ean hasita, Lesakako eraldioien eta buruhandien konpartsa karrizak ibiliko da.

Irailearen 19an, larunbatearekin, zikloaren itxiera ekitaldia egingen dute.

Emanaldi guzietan osasun emergentziak eragindako araudia betetzea izanen da lehen-tasuna.

Joxe Angel Zubiriari omenaldia egin diote Sastrinen

Berez apirilaren 4an egiteko zen ekitaldia uztailaren 11n egin zuten azkenean. Lagunek omenaldi hunkigarria eskaini zioten Joxe Angel Zubiriari Sastrin inguruan. Oinez, autoz eta zaldiz joan ziren. Txalaparta jo, bertsoak kantatu eta aurrekua dantzatu zioten.

Erosketa bonoak hartzeko azken egunak

Herrian kontsumitzea sustatzeko asmoz, erosketa-bonuek banatzen ari da udala 16 urtetik goitiko herritarren artean. 20 euro ordainduta, bortz euroko bortz bonu jasotzen ari dira. Herritarrek uztailaren 31ra arte udaletxean bonuak eros eta erabil ditzakete.

Futbol kanpua aste bakarrean eskaini dute aurten

Erriberako Futbol Eskolak antolatutako futbol kanpusean 41 neska-mutiko aritu dira uztailaren 13tik 17ra, goizez, Mastegin. Aurtengoa berezia izan da, 8 eta 12 urte arteko haur gehienak herrikoak edo ingurukoak direlako eta multzo ttikitan aritu direlako.

MARI TX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

IRU-BIDE

OSTATU · JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

DenakBat
Hemen erabili

kattagorria

LESAKA
948 627 514

www.kattagorria.com

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

ANTZUZELAI

S.L.

BERA · T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK

Herri lanetarako bi langile kontratatu ditu udalak

Aurten ez dira igerilekuetako kontratazioak egin, baina albinteari laguntzeko eta garbitasun lanetarako hartu dituzte

IRUNE ELIZAGOIEN

Aurtengo udan udalak egin dituen kontratazioak murriztu egin dira, igerilekuetako ez baitira egin.

Azken urteetan bezala, bi langile hartu dira Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik (Gizarte Enplegu Babestuaren zerrendatik, hain zuzen), bat kanpoko lanetan albinteari laguntzeko

eta bertzea udal eraikinen eta kanpoko garbitasun lanetan aritzeko.

Bertzetik, urte hasieran erabaki zen langile bat hartzea Etxalarko Turismo Bulegoan lanean aritzeko, Aste Santuan eta udan. Aste Santukoa ezin izan zen burutu, Covid-19a dela eta, baina udakoa martxan paratu da, eta langilea lanean ari da dagoeneko.

Nota bikainak atera dituzte etxalartarako selektibitateko proba berezian

IRUNE ELIZAGOIEN

Leire Iribarren, Maria Martin, Uxue Telletxea eta Uxue Iturriari nota bikainak lortu dituzte selektibitatean. Iruñeko Basoko institutuan egin zituzten unibertsitateko sartzeko azterketak ekain hondarrean. Biologia eta matematika ikasgaiekin beldurra zeukaten eta hagitz urduri joan baziren ere, zapore gozoarekin bukatu dituzte azterketak. Egungo egoera berezia dela eta, babes

neurri handiak jarraitu behar izan dituzte selektibitatean egiteko. Datorren ikasturtera begira, laurek ikasi nahi zutenean sartzeko arazorik ez dute izan eta erizaintza, itzulpengintza, psikologia eta fisioterapia ikasketei ekin diete. Lau neskek borts azterketa tronkal eta hautazko ikasgaiak ere egin dituzte; Uxue, Leire eta Uxuek zientzietako espezialitatean eta Mariak letretakoan.



IRUNE ELIZAGOIEN

Aitor Danboriena memoriale martxan da

Herriko pilotari gazteak aurten ere hasiak dira Aitor Danboriena zenaren omenez antolatutako pilota txapelketako partiduak jokatzen. Ekain akaberatik irail hondarrera arte jokatuko dituzte partiduak. Bederatzi bikotek eman dute izena eta partiduak asteburuero jokatuko dituzte.

Botaluze partidua jokatu eta grabatu dute telebistarako

Uztailaren 4an, borts etxalartarako botaluze partidua jokatu zuten Lizarrietan borts zugarramurdiarren aurka. Partidua Iparraldeko ARTE telebistak grabatu zuen eta urria aldera emitituko omen dute dokumentala. Lehia estua izan ondotik, partidu hau etxalartarako irabazi bazuten ere, errebantxarako hitzordua abuztuaren 1erako jarria dute Zugarramurdin. Partidu hau Frantzisko zenaren omenez jokatuko dute, beraz, Zugarramurdira hurbiltzeko bertze arrazoi bat.

Jolas parkeak zabalik segurtasun neurri bereziekin

Herriko hiru jolastokiak zabaldu dira. Jauregietako *trainera*, plazako parkea eta Bekolandako parke bio-osasungarria udalak egunero garbituko ditu ura eta libixarekin eta bustia ikusiz gero, lehortu arte itxaroteko aholkatu dute.



Arduo Mila esker gurekin bat egiteagatik!
 arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria
 Alzate, 30 BERA T. 948 630 136

F. LANCHAS
 Akutxiladorea eta bernizatzailea
 Parket eta parket flotatzailea jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

KAGU LIBURUDENDA
 Tel. / Fax 948 638 232
 Koskontako bidea, 7
 (osasun-zentroaren parean)
 31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



Haurrak taldetan banatuta ari dira udalekuetan.

21 neska-mutiko hasi dira udalekuetan

Uztailaren 31 arte goizero eskolan bilduko dira hiru begiralerekin

NEREA ALZURI

Aro berrira egokituz eta osasun arauak betez, joan den uztailaren 13az geroztik Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako udalekuetan 21 neska-mutiko parte hartzen ari dira. Taldeetan banatuta ari dira eta hiru begirale dituzte: Nerea Perez del Notario, Ja-

nire Martin eta Ainhoa Larralde.

10:00etatik 13:00etara eskolan biltzen dira aisialdia eta heziketa uztartuz jarduerak euskaraz gozatzeko. Hiru astez izanen dira udalekuak, uztailaren 31ra arte, abuztuko lehenbiziko asterako ez baita haur nahikorik apuntatu.

Pilota eskola uztailleko astelehenetan

Alarma egoerarekin batera, eskolaz kanpoko jarduera gehienak alde batera gelditu baziren ere, Ekaitza Elkartek pilota eskolako saioak berrartu ditu koronabirusa tarteko bertan behera gelditu ziren saioak errekuperatzeko asmoz. Adinaren arabera, taldeka banatuta, astelehenetan 17:30etik 20:30era biltzen dira frontoian eta uztail osoan izanen dituzte entrenamenduak. Tarte horretan pilota eskolako neska-mutikoez izanen dute frontoia erabiltzeko lehentasuna.

Guraso Elkarteko junta erdia berri dute

Ekain hondarrean berri zuten Guraso Elkarteko juntaren erdia eta gurasoen botoak zenbatu ondotik, Rosa Maiz, Idoia Etxeberria eta Amaia Aranguren sartu dira. Bi urtez juntan egon ondotik, irailean Maribel Taberna, Ali Beizama eta Yolanda De Ruedak utziko dute junta eta sartu berri direnek urtebete daramaten Amaia Apaolaza, Natalia Goñi, Estitxu Iparragirre eta Leti Errandonearekin segituko dute. Egoerak bertzelako bidea hartzen ez badu, irailean eskolara itzuliko dira ikasle eta irakasleak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Endara Bizirik plataformaren deialdia

Lesakan egin nahi duten parke eolikoaren proiektuaren kontra, bizilagunek Endara Bizirik plataforma sortua dute eta herriz herri egitasmo honen inguruko azalpenak ematen ari dira. Joan den uztailaren 4ko ilunabarrean herriko plazan egindako aurkezpen-bilkuran herritar andana bildu zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Uda garai akustiko bete-betea Aterpean

Uztail hasieratik, asteburuero kontzertuak izaten dira Aterpean, giro ederrean, eta ondokoak ere beteak heldu dira: larunbatean Joseba Irazoki, 31n Nøgen, abuztuaren 1ean Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena, abuztuaren 8an Petti, 14an Xabi Solano eta Zigor DZ, 22an Arimasoul eta Makala DJa eta 29an Trikidantz.

LARRETXEAK EGYRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketearak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Genero indarkeria landuz ongi pasatzeko aukera

Uztailaren 24an, zine eta tertulia saioa izanen dituzte eta 25ean, 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako tailerra

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aitzineko aldizkari batean aipatu genuen Igantziko Udalak Nafarroako Gobernuaren eskutik dirulaguntza jaso due-la genero indarkeria lantzen duten ekintzak antolatzeko. Horrekin lotuta, bi proposamen egin dituzte uztailaren 24rako eta 25erako.

Uztailaren 24an, ortziralean, 19:00etatik aitzinera Baratzondon elkartuko dira *Volar* filma ikusteko. Filma jatorrizko bertsoian emanen dute, baina azpitutuluak euskaraz eta gaztelaniaz jarriko dituzte. Filma ikusi ondotik solasaldia izanen dute, euskaraz.

Uztailaren 25ean, larunbatean, sexismo-rik gabeko musika eta ikus-entzunezkoak entzuteko eta partekatze-ko tailerra egingen dute. Hamabi eta hamazazpi urte arteko



Zineforuma egingen dute ortziralean.

gazteei zuzendutako tailerra izanen da eta Baratzondon bilduko dira 19:00etatik 21:00etara. Aitzinetik izena ematea beharrezkoa zen saio honetan parte hartzeko (uztailaren 17an bukatu zen epea).

Bi saioetako dinamizatzailea Miren Orozko Etxeberria gizarte langilea izanen da, generoan aditua eta genero indarkerian espezializatua den emakumea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Udalekuetan giro ederrean

Uztailaren hamahiruaz geroztik martxan dira udalekuak herrian. Uztailaren 31ra arte hainbat ekintza egingen dituzte herrian barna zein eskolan. Guztira hamazazpi neska-mutiko elkartzen dira eta argazkia ikusi bertzerik ez dago primeran pasatzen dutela jakiteko.

Baratzondon pantaila paratu dute herritarren eskura

Eskolak soberan zituen proiektore eta pantaila bana eman zizkion herriari eta, orain, herriko talde guztiei ekintzak edo jarduerak antolatzeko aukera eman nahirik, Baratzondon paratzea erabaki dute. Lokala erabiltzeko baimena eskatzea beharrezkoa da.

Herriko garbilekuak eraberritzen hasi dira

Bertze herri batzuetan bezala, gurean ere erabiltzen ez diren garbilekuak ditugu. Gehienak egoera txarrean daudenez, pixkanaka berritzen joatea erabaki dute. Lanetan hasiak dira eta momentuan Simonbaita baserriaren ondoan dagoena eraberritzen ari dira.

Eskolako jantokian aritzeko sukaldari laguntzailea kontratatuko dute

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Igantziko Guraso Elkarteko eskolako jantokian sukaldari laguntzaile gisa aritzeko lanpostua betetzeko deialdia egin du. Euskaraz jakitea beharrezkoa izanen da eta hautagaiak duten formakuntza ere kontuan hartuko dute. Ikas-

turte osorako eskaintza da eta lanaldia, astelehenetik ortziralerara, 12:50etik 14:20ra izanen da. Proposamenak uztailaren 23a baino lehenago aurkeztu behar dira Guraso Elkarteko buzoian utziz edo igantzikogurasoelkartea@gmail.com helbide elektronikora bidaliz.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

www.ibargoyen.net 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

SUNBILLA

XIX. Latasa Saria bertan behera gelditu da

Abuztuaren 9an egitekoa zen kirol jaialdia ez egitea erabaki du Ulibeltzak elkarteak osasun-larrialdiaren eraginez

MAIDER PETRIRENA

Koronabirusa dela eta, aurtun Sunbillan abuztuaren 9an egitekoa zen Ramon Latasa Sariaren 19. edizioa bertan behera uztea erabaki dute Ulibeltzak elkarteak antolatzaileek. Ekitaldia eginen ez denez, eskerrak eman nahi izan dizkiete ekitaldian parte hartu behar zuten kirolari guztiei eta babesleei, «denak prest baitzeuden aurtengo ekitaldi honetan laguntzeko». Antton Espelosin antolatzaileak aipatu duenez, «Sunbillako

pilotalekua handia da, baina azken urteotan guztion artean leporaino betetzealortu dugu». Aurtun, ordea, osasun-larrialdiaren eraginez ez da kirol jaialdirik izanen.

2002. urtean egin zen lehen edizioan Floren Nazabal eta Angel Arrospide suertatu ziren garaile. 2019ko azken edizioan, berriz, Iker Vicente eta Ruben Saralegi lehengusuak nagusitu ziren. Iaz omenaldia ere eskaini zioten aizkolariek Espelosini eta honek eskerrak eman dizkie.



Saralegi eta Vicente irabazle izan ziren iaz. ARTXIBOKOA



AMAI APEZETXEA

Berriz ere mendi-bizikleta gainean

Covid-19a dela eta Caja Ruralek antolatzen dituen BTT karrerak ere bertan behera gelditu ziren. Uztailaren 11n Lizarran izan zuten bizikletaz gozatzeko aukera Eneit Bertiz Apezetxea eta Koldo Herrera Urroz herritarrek. Uztailaren 26an Izkuen izanen dute hurrengo lasterketa.

**GAUR EGUNERA
EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK**

Luis Ibarra

**ZURGIN-LANAK OROKORREAN
636 701 204**

Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)
ibarrazurgina@gmail.com

ALTZURI

Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA - altzuris@yahoo.es
Tel. 948 450 504 M. 659 867 287 - 699 461 394

**MENDI LANAK,
EGUR ATERATZEAK,
ESKABAZIOAK, GARRAIOAK,
GARBITZE MEKANIKOAK,
ITXITURAK**

**SU EGURRA
ETA PIKITEAK SALGAI**

**Lizun
GAZTANDEGIA**

Sunbilla · Tel: 948 450 862

Oinarrizko gaitasun digitalak langai hilaren 27tik 31ra

San Miguel ikastetxean emanen dute, arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara

MARGA ERDOZAIN

Oinarrizko gaitasun digitalak lantzeko ikastaroaren bigarren saioa uztailaren 27tik 31ra izanen da. Arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara, dute hitzordua. Nafar Lansarek, Malerrekako Mankomunitatearen laguntzaz antolatutako

ikastaro hau San Miguel ikastetxean emanen dute. Internet bidezko kudeaketak berme osoz egiteko xedea izanen du. Bigarren txanda honetan izena emateko, interesa dutenek 948 45 09 09 telefonora deitu edo esantest@navarra.es helbidera idatzi beharko dute.



Herritarrek ez-bestetan izandako jarrera eskertu dute.

Udalak ez bestetan herritarrek izandako jarrera eskertu du

M. ERDOZAIN

Herriko etxeakain hondarreen izan diren ez-bestetan «norbera zainduz denak zaintzeagatik» eta eskatutakoari kasu egiteagatik eskerrak eman nahi izan dizkie herritarrei. Hala, lerro hauen bitartez, «guztiok izandako portaera eredugarria» txalotu nahi izan du.

Zaitzen segitzeko deia

Esker mezu horri zuhurtziarako bertze mezu bat ere gehitu nahi diote udal kideek, birusa oraindik gure artean dagoela oroitarazte aldera: «jarrai dezagun udan ere geure burua zaintzen eta musukoaren erabilera eta segurtasun neurriak betetzen».

Aisialdia, eguneroko martxa eta norberak izaten dituen jarduerak behar den bezala burutu eta «udaz gozatzeko guztion elkarlana behar da, osasun arazoak ez izateko». Ea guztia orain arte bezala zintzo betetzerik duten!

OSASUN ARAZORIK EZ IZATEKO ELKARLANA ESKATU DUTE

'Donezteben erosi, Donezteben bizi' kanpaina uztailaren 31ra arte

MARGA ERDOZAIN

Herritarrek bonuak eskuratzeko aukera hilabetearen bukaerara arte, hau da, 31ra arte, izanen dute. Herrian erroldatuta dauden bizilagunekudal bulegoetan eskuratzen ahal dituzte 20 euroko bonu txartelak eta horiekin ekimenarekin bat egin duten saltokietan 30 euroko erosketa egin ahal izanen dute.

Horrela, Doneztebeko Herriko Etxeak osotara 600 bonu kaleratu ditu, 6.000 euroko dirulaguntza emanda. Hala, Covid-19ak eragindako krisia



PATXI IRIARTE

arindu eta itxita egon ziren saltokiei lagundu nahi izan die. Aldi berean, udalak bertako kontsumoa bultzatu nahi izan du.

Abuztuan C1 ikastaroa eskainiko dute euskaltegian

IKA euskaltegiak antolatutako C1 ikastaroan izena emateko epea uztailaren 29an, heldu den asteazkenean, akituko da. Lau asteko aurrez aurreko ikastaroa abuztuaren 3tik 28ra, lau astez, izanen dute euskaltegian. Izen-ematea 948 45 15 55 telefonoan edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidera idatziz egin ahal izanen da. Gainera, Malerreka eta Bortzirietako ikasleek doakotasuna programari esker, ikasturte honetan ere ikastaroa debalde jaso ahal izanen dute.

Liburutegia itxita abuztuaren 20ra arte

Abuztuaren 20ra arte herriko liburutegia itxita egonen da oporrak direla eta. Abuztuaren 24tik irailaren 15era bitarte zerbitzua goizez eskaintzen jarraituko dute, hau da, 09:00etatik 13:00etara.





"TELLETXEA"
Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

BAZTAN-BIDASOALDEA



Partida ikusgarriak ikusten ari dira aurten kopa formatuan jokatu behar den Baztan-Errekako txapelketan. UTZITAKO ARGAZKIA

Laxoa eskolak emanen dituzte datorren ikasturtean

Iruritan eta Donezteben izanen dira astelehenetan, bederatzirteetik hamasei urtera arteko neska-mutikoei zuzenduak

TTIPI-TTAPA

Laxoa Elkarreak bederatzirte eta hamasei urte arteko neska mutikoendako eskolak emanen ditu Iruritan eta Donezteben 2020-2021 ikasturtean. Astelehenetan bilduko dira, bi taldetan banatuta: 17:00etatik 19:00etara (9-13 urte artekoak) eta 19:00etatik 21:00etara (13-16 urte artekoak). Interesadutenek mezu bat igorri beharko dute laxoaelkarrea@gmail.com helbidera abuztuaren 20a

baino lehen. Irailetik ekainera emanen dituzte eskolak eta ikasle bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu. Horietatik 20 euro Laxoa Elkarteko bazkide izateko izanen dira eta bertze 20ak sortuko dituen gastuei aurre egiteko (pilotak, eskularruak...). Izena ematen duen ikasleren bat dagoeneko Laxoa Elkarteko bazkidea baldin bada 20 euro ordaindu beharko ditu ikastaroaren truke.

Laxoa kopako finala abuztuaren 1ean Arraiozen

Hau idazterako orduan oraindik finalerdiak jokatzekoak zituzten, baina abuztuaren 1ean, 17:00etan, jokatu da Baztan-Errekako laxoa kopako finala Arraiozko plazan. Finalerdietan, alde batetik, Doneztebe The Moment (Pascual Bertiz, Julen San Miguel, Koldo Legarra eta Javier Bertiz) eta Arraioz Sagardia (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Miguel Maritorea eta Jon Gamio) eta bertzetik, Doneztebe Zarbonet (Javier Almandoz, Xanti Uterga, Felipe Ganboa eta Koteto Ezkurra) eta Irurita Miguelene (Xabier Barberena, Gorka Urtasun, Egoitz Prim eta Iñaki Etxandi) aritzekoak ziren.

Txapelketa ikusgarria suertatzen ari da.

Gizarte hezitzailea kontratatu nahi dute Bortzirietan ordezkapenerako

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak gizarte hezitzailea kontratatu nahi du ordezkapen bat egiteko. Hautatzeko probak 2020ko uztailean edota abuztuan egingen dituzte.

Baldintzei dagokionez, Gizarte hezitzaile gradua edo baliokidea izatea, gidatzeko baimena eta kotxe izatea eta euskalduna izatea, C1 edo baliokidea eskatuko dituzte.

Deialdian parte hartzeko eskaera uztailearen 24ko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu beharko da Etxalarran, mankomunitateko bulegoetan. Aldez aurretik, Lansaren izena emana egotea ezinbertzekoa da (lan eskaerazaila edo lan hobetze modalitatean). Eskaera orria eta baldintza plegua interesdunen esku egonen da mankomunitateko bulegoetan (948 63 50 36 telefonoan edo info@bortziriakgz.eus posta-elektroniko helbidean).

Euskara irakasleen lan-poltsa osatzeko deia egin du IKAK

IKA euskaltegiak euskara-irakasleen lan-poltsa osatzeko deialdia egin du, 2020-2021 ikasturtean sortzen ahal diren beharrei erantzuteko. Interesatuek curriculum urria baino lehen bidali beharko dute bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidera. EGA titulua edo baliokidea, komunikatzeko eta taldeak dinamizatzeko gaitasuna, B1 gidabaimena eta autoa eskatzen dute eta glotodidaktika ezagutzak eta lizentziatura izatea baloratuko da.



ASCENSORES ARGA
IGOGAILUAK

Parrokia 15 behea, 31740 Doneztebe
znorte@ascensoresarga.com

T. 643 937 922



«Azken 40 urteotan ehun lagun guttiago izanen gara herrian»

JON TELLETXEA JUANENEA BEINTZA-LABAIENGO ALKATEA

Beintza-Labaiengo udaletxeko martxaz aritu da alkatea TTIPI-TTAPAREKIN. Besteak beste, Labaien auzoan egin nahi duten erabilera anitzeko lokalaren proiektua gelditua dagoela kontatu du

G. PIKABEA BEINTZA-LABAIEN

Ezaguna du udaletxeko martxa Jon Telletxeak. Beintza-Labaiengo alkate karguan bigarren agintaldia du eta aurretik beste bi urte egin zituen Nafarroako Gobernuak izendatutako kudeaketa-batzordean. Egindako ibilbideaz balorazio «ona» egin du, baina aldi berean, ezohiko egoerak «dena» aldatu diela onartu du.

Zergatik aurkeztu zinen hauteskundeetara?

Lehendik zegoen taldeak utzi eta udalik gabe gelditu ginean izan zen. Kudeaketa-batzordea sortzen ez bazen, herria kudeatzera kanpotik etorriko zirela esaten hasi ziren eta horrek eta herriari zerbait laguntzeko gogoak bultzatu ninduen. Bi urtez kudeaketa-batzordean egon ondotik, hauteskundeetara aurkeztu ginen. Hau bigarren agintaldia dut eta balorazioa ona da.

Koronabirusak zertan aldatu dizue udaletxeko martxa?

Beste edozein tokitan bezala, funtzionamendua erabat aldatu du eta kontu asko zintzilik gelditu dira. Horrez gain, herri ttiki hauetan egiten diren lanak askotan laguntzen mende izaten direnez, horien esperoan gaude; ez dakigu aterako diren eta ateratzekotan zein baldintzatan izanen diren.

Baduzue proiekturik esku artean? Labaienen zerbitzu anitzetako lokal bat egiteko etxe zahar bat erosi genuen, baina Vianako Printzea Erakundearen barne



Bigarren agintaldia du Telletxeak alkate karguan.

katalogatutako eraikina izaki, ezin ditugu gure asmoak osotara bete, katalogazio horretan sartua izateak mugatzen gaitu. Lanak esleituak genituen, baina orain, dena geldiarazia da. Bestetik, bide asko eta baso eremu zabala dugu eta horie ere segida eman behar zaie.

Zergatik erabilera anitzeko aretoa?

Labaien auzoan ez dugu aterperik eta bestak direla edo beste kontu askotarako murriztzen da. Asmo horrekin hasi ginen. Edozer gauzatarako balioko luke, dantza taldeak dantzarako leku bat izan dezan, kultur ekitaldiak egiteko...

Leurtzako urtegiaren kudeaketa nola daramazue?

Aurtengo denboraldian esfortzu gehigarria eskatu die Urroz-

ko eta Beintza-Labaiengo udalei. Ez dugu baliabide handirik eta betitik kostatzen izan zaigu horko kudeaketa. Aurreko urteetan hiru langile hartu izan dira udan. Aurten, ordea, gehiago, garbitasun eta zaintza lan gehiago egin behar delako.

Gastua sarrera baino gehiago da?

Urtetik urtera Leurtzara bideratzen duten dirulaguntza murriztu egin da eta gastuak handiak dira: bertara joateko bidearen mantentze-lana, Leurtzako lanak, langileria... Bertze iturri bat bilatu beharra zegoen eta horregatik erabaki zuten, gu sartu aurretik, autoei tasa kobratzea. Eta aurten, erretegiak eta mahaiak erabiltzeko ordaindu behar da. Behartuak gaude bertatik lor-

tzen dugun dirua bertan inbertitzera eta beti izaten da zerbait. Gainera, alde-alde eduki behar da bisitari kopurua dezentea delako. Aurreko urteetan 30.000-35.000 lagun joan-etorria zenbaitu izan da. Zaila da herri ttiki hauentzat halako eremua gestionatzea eta ahal duguna egiten dugu. Bere garaian, Nafarroako Gobernuak eremu natural izendatu zuen eta alde horretatik babes pixka bat ere badugu.

Zein neurri hartu dituzue aurten?

Gobernuarekin elkarlanean protokoloa prestatu dugu. Horren arabera, bisitari guztiak noranzko berean ibiliko dira, kotxe kopurua 85era mugatu dugu, egunean gehienez 400 lagun sartu ahal izanen dira...

Bestalde, biztanleria beheiti doa.

Kezka sortzen dizun gaia da?

Ez da oraingo kontua. Azken 40 bat urteotan ehun lagun guttiago izanen gara. Horixe da herri ttiki askotako joera. Herrian ez dago lanerako aukerarik eta nekazaritzak behera egin du. Lehen bezala, herrian bizimodua ateratzeko aukera izanen balitz, behar bada jendea geldituko litzateke, baina lanera kanpora joan behar izateak lantokitik hurbilago bizitzeko gelditzea dakar.

Eskola ixtearen eraginik sumatu duzue?

Hutsa sumatzen da. Umeek errekreio denboran edo gurasoek harat-honatean sortzen zuten mugimendurik ez dago. Udalaren aldetik irekia mantentzeko ahal genuen guztia egiten saiatu ginen baina gurasoen hautaketa izan zen, haiek erabaki zuten orain ez bazen geroxeago itxiko zela eta beste eskoletara joatea.

Besten seinalerik eginen duzue?

Malerrekako Mankomunitate mailan, uztailean eta abuztuan bestak ospatzen ditugun herrietako ordezkariok bilera egin eta denen artean bestak alde batera uztea erabaki genuen. Hala ere, irekiak gaude eta herritarrekin egon ondotik ikusiko dugu seinale gisa zerbait antola daitekeen edo ez.



Iciar Mikelperizena izanen da gidari.

Eskulan ikastaroa martxan abuztu akabaila arte

Sunbillan, Elizondon eta Beran izanen dira klaseak eta elkarteko kideek dirulaguntzak izanen dituzte

PABLO IRASTORTZA

Denok dakigun arrazoiengatik, ezin izan dugu azkeneko hilabete hauetan gogoan genuen ia ezertxo ere konplitu. Bete-behar nagusia, norberak bere burua eta ingurukoena babestea izan da, ahalik eta osasuntsuen izateko. Gaitz eradi hori lortu baldin badugu!

Uda honetan, urruti joan gabe, etxetik pixka bat ateratzeko aitzakia izan eta zer edo zer egin nahi izanez gero, zonaldean bertan daukagu eskulan ikastaroez gozatzeko eta imajinazioa lantzeko aukera paregabea. Nahiz eta

eskulan saioak uztailean hasiak diren, abuztuaren akabaila arte aprobeitza daiteke aukera.

Abuztura bitarte

Aipaturikoak Sunbillan, Elizondon eta Beran izanen dira, Iciar Mikelperizena margolari eta artista ezaguna izanen delarik gidari. Ez aiantzi, berte aktibitateetan bezala, eskulan ikastarorako ere, Arkupeakeko bazkideek dirulaguntza polita lor dezakezuela. Azkenik, eta informazio osoa eskuratzeko, Mikelperizena berarekin harremanetan jar zaitezke.

Herrietako ordezkariekin egitekoa duten bilerarako egunik ez dute zehaztu

PABLO IRASTORTZA

Elkarteak, herriz herri dituen ordezkariekin egin beharreko bilkurari dagokionez, jendea elkartu ahal izateko bete beharreko neurri zorrotzak bermatzeko, bilera eginen duen egoitza zehazteke du oraindik. Joan den ekainaren 23an, as-

teartean, Zuzendari Batzordeak hartutako erabakiari jarraiki, hitzordu-egunari buruzko informazio osoa eta zehaztasun guztiak laster jakinaraziko dira. Bien bitartean elkartetik batzordeko kideei «Jasaitasuna» eskatu nahi izan diete.



Sagardotegira, Donostiara eta Xabierrera bakarrik izan dira aurtengo irteerak.

Heldu den urterako hainbat ekintzari begira hasia da elkartea

PABLO IRASTORTZA

Nahiz eta inguruan dena geldirik dagoela dirudien, ez daukelo elkartearen zaintza osatzen duten lagunak, eguneroko normaltasunean aitzinera jarraitu behar baita.

Orain, heldu den urterako –eta iragarriko diren– hainbat ekintzari so egiteko asmo irmoa daukate.

Dirulaguntza eskaera

Helburu hori lortzeko, elkarteko Ekonomia Batzordeak, zuzen eta fin lan eginez, bai Nafarroako Gobernuari, baita hainbat aurrezki erakunderi ere urte-

roko eta nahi eta nahiezko dirulaguntzen eskaera egin die.

Udaletxe eta erakundeek laguntza

Ez da aiantzi behar antolatzen diren edozer ekintza, ezin izanen liratekeela osatu –diruaz aparte– zonaldeko herrietako udal eta bertze zenbait erakunderen laguntzarik gabe, beti eskertu behar baitaie, kiroldegia, pilotalekua, eskola, etab. uzten dituztenei.

Horiek elkarteari uzteko ematen duten ordainezinezko jarrrera eta borondatea eskertze-koa da.

Laster banatuko dute bigarren seihilekoko buletina

PABLO IRASTORTZA

Urtero bezala, aurtun ere, kide guztiari zabaltzeko bigarren seihilekoko buletina izanen dutela iragarri dute. Aurtengoa, ordea, berezia izanen da. Izan ere, elkarteak iragarritako ia ekintza guztiak bertan behera utzi behar izan diren honetan, nahi baino meheagoa dela jakinarazi dute.

Liburutxoa prest izan bezain pronto, herrietako ordezkari prestu eta jatorrei bilerara deituko zaie. Hala, bileran bertan, elkarteak burututako eta burutzeko dituen ekintzen



22. buletina laster banatuko dute.

eta bertzelakoen berri zehatza emanen diete, ondotik gaine-rakoei helarazteko.

Musukoaren erabilera zorrozten ari dira

Ipar Euskal Herrian abuztuaren 1etik aitzinera leku itxietan erabili beharko dela adostu dute

TTIPI-TTAPA

Koronabirus kasuak areagotu ahala, osasun agintariak, kutsatzeak saihesteko, musukoaren erabilera zorrozten ari dira Euskal Herri osoan.

Ipar Euskal Herrian abuztuaren 1etik aitzinera

Ipar Euskal Herrian, momentuz, 11 urtez goitikoek toki itxietan, garraibide publikoetan, museoetan eta monumentuetan, erabiltzea arautu dute. Gisa berean, gainerako toki publikoetan musukoa janztea gomendagarria dela adierazi dute, prebentzio neurri eraginkorrenak «maskara janztea, segurtasun tartea mantentzea eta gela erabiltzea» direlako. Gomendioa arau bihurtuko da laster. Izan ere, Emmanuel Macronek, Frantziako presidentetarako, abuztuaren 1etik aitzinera toki itxi guztietan musukoa nahitaez jantzi beharko dela iragarri du. Eta, era berean, sintomak izan edo ez, herritarrei PCR probak egiteko aukera emanen diete.

Hegoaldean segurtasun tartea mantentzen den kasuetan ere bai Lerro hauek idazterako orduan Nafarroako Gobernua maskara ezinbertzean erabiltzeko neurriak aztertzen ari zen eta araua zehaztear zuela iragarria zuen. Gertatutako birusaren agerraldiaren aitzinean, metro eta erdiko distantzia mantentzeko erabilera derrigorrezkoa izatean nahi dute.

Gobernuek ez ezik, foru aldundiek eta udalek beharrezkotzat jotzen dute maskarak erabiltzea.



Ipar Euskal Herrian toki publikoetan ere musukoa janztea derrigortuko dute.

DESKONTUAK

MALERREKA

TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

<p>%10 DESKONTUA pajama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigerutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 100€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p>%5 DESKONTUA kontsultetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com</p>
<p>%5 DESKONTUA kosmetikan</p> <p>%5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora.</p> <p>Ametzia DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p>%10 DESKONTUA</p> <p>Eliza, 18 behe DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>	<p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Elizagibela, 4 behe DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>
<p>%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan</p> <p>30€tik gorako erosketetan</p> <p>Ametzia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	<p>%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com</p>	<p>%5 DESKONTUA zakur eta kaluen pentsuari</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	<p>%10 DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>

«Herriko bestarik gabe aurtengo uda berezia eta arraroa izanen da»

FATIMA MITXEO MENDIOLA DONAMARIA-GAZTELUKO UDALEKO ZINEGOTZIA

Herriko besten faltan, seinale gisa bazkaltzeko bilduko dira gazteluarrak aurten. Horrez gain, laster Gazteluko ostaturia errentan aterako dutela kontatu digu Mitxeok

G. PIKABEA GAZTELU

Zuzen bidean, abuztu hasieran ospatu ohi dituzten herriko beste begira egonen lirateke tenore honetan gazteluarrak, txupinazo, aizkora-apustu, otordu eta musika hitzorduei begira. Aurtengo urtea, ordea, alde guztietatik berezia izaten ari da eta, bertzeak bertze, bestak alde batera utzi behar izan dituzte han eta hemen. Gaztelun ere, egoerak hala behartuta, bide beretik jo dute eta ohiko ospakizunik gabe geldituko dira. Hala ere, Fatima Mitxeko Donamaria-Gazteluko Udaleko zinegotziak azaldu digunez, badute seinalaren bat egiteko asmoa.



Fatima Mitxeko gazteluarra zinegotzia da Donamaria-Gazteluko Udalean.

Urtebete zinegotzi

Joan den urteko maiatzean hauteskundeak egin eta ekainean hartu zuen kargua Mitxeok. «Herrian zerbait egiteko» nahiak bultzatuta eman zuen pausoa eta ordura arte udaletxeko martxa ezezaguna

bazuen ere, ez da damutu hartutako erabakiaz, «posible duguna eginez, kontent» ari dela aitortu baitigu. Gazteluarra izaki, Gazteluko kontuak hartuak ditu bere gain udal txean eta aurten hainbat lan

egin dituztela azaldu digu: «plazako pareta pintatu, parke tiki bat egin, herria inguratzen duen bidea konpondu eta brea bota...». Baina baita «herriko bertze hainbat tokitan ere: Igurin auzoan bide bat moldatu, Donamariako parkea pintatu, uraren hoditeria berri eta depositua konpondu, auzolanean hainbat lan...». Eta esker oneko hitzak ditu herritarrendako: «Donamariako eta Gazteluko herritarrek lan ederra egin dute auzolanean».

Ez igerilekurik, ez bestarik

Kontatu digunez, koronabirusak «ez du aunitz aldatu» Gazteluko 120 bat herritarren egunerokoa, «hemen bakoitzak bere etxea eta lorategia du eta alde horretatik berdintsu ibili

gara». Baina onartu digunez, «uda berezia eta arraroa» izaten ari da. Alde batetik, igerilekurik gabe gelditu direlako eta bertzetik, bestak ospatu ezinik. Mitxeok erran digunez, «udalarentzat igerilekua ez irekitzeko erabakia hartzea ez zen erraza izan. Bagenekien herritarrek igerilekua nahi zutela baina irekita mantentzeko baldintzak betetzea zaila izanen litzatekeela ikusten genuen. Bi sorosle beharko lirateke, garbitasunerako bertze bat edo bi, edukiera mugatu eta hori kontrolatzea ere zaila izanen litzateke...». Dena den, «igerilekuaren faltan, errekarra edo hondartzara joanez, edo bakoitzak etxean igerilekua paratuz» gozamenerako bidea bilatu dutela adierazi digu.

Are hutsune handiagoa eragiten dio herriko bestarik gabe gelditu izanak, gustuko dituelako, bereziki, «bezpera eta herri bazkari eguna». «Bezperan familiarekin eta lagunekin elkartzen gara, eta gustura afaldu ondotik ostatura ateratzen gara. Herri bazkariaren eguna ere polita izaten da. Gosalteko biltzen gara, ondotik mahaiak paratzen ditugu eta bazkalondoa musika izaten da. Giroa goizetik hasten da eta arratsera arte irauten du».

Aurtengo bestetan halako irudirik errepikatuko ez bada ere, seinale gisa «abuztuaren 1ean Doneztebeko Santamaria jatetxean bazkaria» antolatuko dute. «Urtero, plazan egiten dugun bazkarian 80 bat lagun elkartzen gara eta aurten 50 biltzen bagara, kontent izanen gara». Hortik aparte, «bezperan bakoitzak bere etxean zopak eginez eta abuztuaren 4ko mezarekin» egiten diete keinu santodomingoiei.

Bestak alde batera utzita, «udalak, hilabete honetan edo hurrengoan, Gazteluko ostaturia errentan aterako duela» aipatu digu. «Irailetik itxita» dago eta ederki nabaritzen omen da. Hortaz, hortxe luzatu du gonbita: «Ea norbaitek hartzen duen ostaturia».

inelsa
ZENER
ascensores
igogailuak

Igogailuen instalazioak.
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com

Hilerri inguruan sasiak moztu eta pareta egin dute

Zenbait lagunek, elkarlanean, hilerri ingurua txukundu dute. Sasiak kendu eta pareta egin dute, ingurua garbi-garbi utziz. Herriarrek egindako lanagatik eskerrak eman nahi izan dizkiete.



Herriko Ostatua egunero irekiko dute

Uztailean hasita, herritar eta bisitariek noiznahi tragotxo bat egiteko edo mokadutxo bat jateko aukera izanen dute Zubietan bertan. Izan ere, Anuska Garrote eta Nagore Diazen eskutik Herriko Ostatua egunero irekita izanen da, asteartean izan ezik (atseden eguna).

Errotarako laguntzailea kontratatu dute

Zubietako Udalak Mirentxu Telletxearekin, errotako langilearekin, batera udako hilabeteetan aritzeko langilea kontratatu du. Aurrerantzean Beñat Etxekolonea herritarra eta biak ariko dira bisitariei azalpenak ematen eta euren jakin-mina asetzen.

Erlekume bat bildu dute herriarrek

Eliza inguruan agertutako erlekume bat bildu zuen uztailearen 11n lagun talde batek Zubietan. Kontu handiz hartu eta erlauntza batera eraman zuten Zubietako Diego, Maria eta Txasek.



EDORTA AMURUA ZUBIRIA



PROMOCIONES MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



AUKERA BIKAINA Sunbillan!

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

3 edo 2 logelakoak, sukaldea, egongela, 2 bainu, trastelekuak eta lurpeko garajeak

Lokal komertzialak



EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak



✓ Zure beharren araberako finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin

Euskara ikasleak ahoak eta belarriak bizitzeko prest

Itxialdiaren ondotik, euskaltegiatako ikasleak karriketara atera eta euskara aditzeko eta euskaraz aritzeko gogotsu daude

NEREA BAZTERRIKA

Ari gabe ez dago euskara ikas-terik eta ikasi gabe ez dago ari-terik. Bide horretan, etxetik euskaldun ez direnendako edota hizkuntza landu nahi dutenendako bereziki, eginkizun garrantzitsua betetzen dute euskaltegiek.

Euskara ere koronabirusak jota

Koronabirusaren ondorioz, euskara eskolak aldatzeak ondorio zuzena izan du hizkuntza ikasten ari ziren ikasleengan. Hainbat izan dira itxialdiaren ondorioz bizi izan dituzten zailtasunak: batzuek, zaintza lanak tarteko, ikasteko denbora gutiago hartu dute; berteze batzuei, bakartze aginduagatik, erabilera eremua nabarmen mugatu zaie; izan da euskaltegiko taldearen babesa eta laguntza falta urrutiago sumatu duenik ere.

Aho eta belarriak bizitzeko prest

Eskualdeko AEK euskaltegiatan ikasten ari den Itziar Santamaria Goñik (Iruñea-Lekaroz, 1982) eta IKAn dabilzan Olaia San Miguel Mitxelenak (Doneztebe, 1996) eta Alba Rodà (Figueres-Lesaka, 1988) itxialdiaren eragina bete-betean sumatu dute.

Oztopo guztien gainetik, ahal izan duten neurrian, ikasketa prozesuari eutsi diote; materiala etxean jaso eta tarteka bideodei bidezko saioak jasoz egin dute aitzinera. Hala ere, bidean, modu batera edo bertzera, gehiago edo guttiago, «garapena moteldu» zaielakoan daude.

Orain, mantsotu diren aho eta belarriak bizitzeko prest

daude eta konfinamendutik arintzearekin batera, etxeko lau paretetako estutasunetik ihesi, karriketara atera nahi dute, arnasmuneen bila.

Euskaraldia

Ondotik, azaroaren 20tik abenduaren 4ra, hamabortz egunez, izanen den Euskaraldiaren bigarren edizioan, hartutako bidea segitzeko asmoa dute. Hau da, lehenbiziko edizioan hizkuntza ohiturak aldatzeko egindako ariketarekin segitu nahilukete. Edizio honek badu berrikuntza bat. Ahobizi eta Belarriprest rolez gain, euskaraz aritzeko guneak gehituko baitituzte. Horrela, entitate barruko eta kanpoko harremanetan euskaraz hitz egiteko aukera bermatu nahi dute. Ariguneentzat izen-ematea zabalik da dagoeneko eta Ahobizi eta Belarriprestek irailetik aitzinera izanen dute aukera.

«JENDEA EUSKARA IKASTERA ANIMATUKO NUKE»

OLAIA SAN MIGUEL, DONEZTEBE

«KLASEAK ETXETIK JASOTZEA ZAILAGOA DA»

ALBA RODÀ, FIGUERES-LESAKA

«NIRE SEMEAK EUSKALDUNAK IZATEA NAHI NUEN»

ITZIAR SANTAMARIA, IRUÑEA-LEKAROZ



Ikasketak akitu zituenean eman zuen euskaltegian izena San Migelek.

«Inbidia ematen didate inguruko herriek euskara gehiago erabiltzen dutelako»

OLAIA SAN MIGUEL MITXELENA

Euskaltegia ez da euskara ikas-terko tokia bakarrik, hizkuntza lantzeko eta trebatzeko gunea ere bada. Hain zuzen, horretarako jo zuen Olaia San Migelek (Doneztebe, 1996) IKArak: «unibertsitateko ikasketak akituta, euskara titulua lortzeko tenorea zela pentsatu nuen eta animatu egin nintzen». Euskaraz solas egiteko arazorik ez izanagatik, idatzizko adierazpena «gutxiago» lantzen zuenez, «errepaso batek kalterik ez» ziola eginen pentsatu zuen.

Lanari etekin handiagoa ateratzeko asmoz, aurrez aurreko saioen aldeko apustua egin zuen doneztebar gazteak. Dena den, alarma egoera tarteko, «lauzpabost astez» etxetik aritu behar izan du. Ederki nabaritu du eragina: «etxean bertze gauzak egiten pasatzen dut eguna eta ordenagailu aitzinean jartzea kosta egiten da...».

Zorionez, «taldekide guztiak klaseetara bueltatzeko prest» zeudenez, saioei ekin zieten: «segurtasun neurriak betetzeko eta aulki batetik bertzera bi metroko tartea uzteko mahaiak mugitu genituen». Egoerara egokitzea eta «bereziki maskara erabiltzeko» ohitura hartzea zail egin zaion arren, aukeran nahiago du taldean bildu: «ni ez naiz etxean egotekoa, etxetik kanpo bai lanari baita ai-

sialdiari dagokionez ere, gehiago egiten dudala iruditzen zait».

Herriko karriketari gustura ibiltzen den arren, San Migelek badu hizkuntzaren erabilerrari buruzko kezka eta, alde horretatik, «pena» sentitzen du: «inguruko herri txikietan Donezteben baino gehiago erabiltzen da euskara... eta hemen, bertako haurrak erdaraz solasean sumatzeak pena ematen dit».

Ongi daki haurren eredu helduok garela eta «kontziente naiz heldu aunitzek erdaraz solas egiteko ohitura duela...». Aldaketarako giltza erabileran dagoela uste du doneztebar gazteak, eta horregatik, bera «ingurukoekin beti» euskaraz aritzen da.

Eremuak zabaltzeko eta euskara erabiltzeko, orain bi urte ez bezala, Euskaraldia egitasmoan izena emateko asmoa du aurten: «administrazio publikoko bertze lankideekin eta neure kabuz emanen dut izena».

Euskaltegian, lantokian eta karrikan, egunero eta txoko guztietan, euskara aditzeko eta euskaraz bizitzeko dakitenak erabiltzera eta ez dakitenak ikastera animatu nahi izan ditu: «batez ere bertan bizi direnak eta oraindik ez dakitenak. Bizi garen ingurunean euskara beharrezkoa dugulako eta lan munduan ate aunitz irekitzen dituelako».



Euskara «herrian sartzeko» lagungarri izan zaiola uste du Rodak.

«Jendeak aunitz eskertzen du kanpokoia izanik euskara ikasi eta erabiltzea»

ALBA RODÀ CALVO

Figueresen (Katalunia) sortu zen Alba Rodà eta, sorterrria utzita, 2018ko abuztuan Lesakara etorri: «hemen lagunak nituelako etorri nintzen Lesakara eta lehenbiziko momentutikizugarria irudituz zaidan». Hasieran aldi baterako bidaiari izanen zela pentsatu arren, gero, «bertan segitzea» erabaki zuen. Herrian «famiario bat bezala» hartu dutenez, ez da hartutako erabakiaz damutu eta «hagitz kontent» dago.

Euskal Herrira etorrita, «bertako hizkuntza eta kultura ikastea edo behintzat saiatzea normala» dela iritzita, hasi zen euskara ikasten eta egun euskaraz bizi da: «normalean, lagunekin euskaraz solas egiten dut eta lanean ere euskara erabiltzen dut».

Lehenbiziko hitzak «lagunen semeekin jolasten» ikasi zituen: «zenbakiak eta asteko egunak erakutsi zizkidaten». Ondotik, urrian, «oinarria hartzeko eta zerbait ulertzeko» Lazkaoko barnetegira jo zuen: «hilabete bat egitea pentsatu nuen baina aurrerapen handia egin nuenez, abendura arte bertan gelditu nintzen». Gerora, bertze bi hilabete egin zituen barnetegian eta «2019ko urrian hemengo euskaltegian» hastea erabaki zuen: «orain, astean bi egunez Berako euskaltegira joaten naiz».

Etxealdian «hasieran WhatsApppe eta gero Jitsi aplikazioaren bidez» segitu du ikasketaren prozesua: «ez da gauza bera izan. Klaseak taldean izatea eta klasekoekin zerbait hartzeko gelditzea» gustuko duelako eta hasieran behintzat «gutxiago» erabili duelako: «pixkanaka gehiago solas egiten eta ahozko mezuak bidaltzen saiatu nintzen eta, egia erran, jendartean komunikatzeko ongi moldatzen naiz, idaztea zailagoa egiten zait...».

Hizkuntza «herrian sartzeko» giltza izan dela sentitzen du Lesakan bizi den kataluniarrak. Izan ere, «jendeak kanpotik etorri eta euskara ikasi eta erabiltzea aunitz eskertzen du». Herrian sartzea, berriz, hizkuntza ikasteko mesedegarri izan zaio: «hasieran, nirekin euskaraz solas egin zezaketen galde-tuz gero halaxe egiteko erraten nien eta, batzuetan zaila izan arren, ahaleginak merezi du». Gaur gaurkoz, «herriko jendearekin eta ia-ia denekin» euskara erabiltzen du.

Rodàk «zorte handia» izan duela sentitzen du: «herrian beti laguntzeko prest daudelako eta galdetzen ditudan zalantzak eta ulertu ez ditudan gauzak argitzeko prest» agertu direlako. «Horren ongi hartu nautelako» esker oneko hitzak ditu guztientzat.



Duela lau urte hasi zen euskara ikasten Santamaria.

«Etxean bi haur izanik euskara lantzeko tartea hartzea arras zaila izan da»

ITZIAR SANTAMARIA GOÑI

Baztanekiko harremana «ttikitatik» izan du Itziar Santamariak (Iruñea, 1982). Hogei urte baino gehiago daramatza Baztanen bizitzen eta bertze sail bat Iruñetik joan-etorrian: «nire gurasoek Erratzuko Iñarbegi auzoan lagun-minak zituzten eta Lekarozen etxea erosi baino lehen maiz etortzen ginen Baztanerat». Ongi oroitzen ditu herrira egindako bueltak eta Baztani zor dizkio «ttikitako oroitzapen ederrenak».

Hamasei urte zituelarik bertan bizitzeko nahia errealitate bihurtu zitzaion Santamariari eta «orduan hasi zen nire belarriprest prozesua». Lagunartean «beti» euskaraz solas egiten zuten, ulertzen hasi zen, «baina ez nintzen deus errateko gai». Ikasketak egiten kanpoan izan zen eta bueltatu zenean, «euskara ikasi nahi nuen arren, ikasketak eta denbora falta nuela pentsatzen nuen. Beti bilatzen nuen aitzakiaren bat».

Orain lau urte, «seme zaharrena eskolan hasi zelarik, aitzakiak utzi eta euskaltegian izena ematea» erabaki zuen: «nire semeak euskaldunak izatea nahi nuen eta haiek euskara jakinik, nik ez jakiteak ez zuela zentzurik pentsatu nuen».

Hasi bazen hasi, ez da hartutako erabakiaz damutu. Izan ere, «Baztanen bizitzeko eus-

kara beharrezkoa» dela uste du. Hizkuntza ikasteak, bertzeak bertze, «euskaltegian eta euskaltegitik kanpo jende aunitz ezagutzeko» bide eman dio.

Aurten «autoikaskuntza bidez» segitu du ikasketaren prozesua eta «astean behin» euskaltegira joan da, «mintzapraktika egiteko». Etxealdian saio hori «bideo-deiak» ordezkatu duen arren, gainerakoa lantzeko denbora hartzea zail gertatu zaio: «etxean bi haur izanik niretzat momentu bat hartzea arras zail egin zait». Hortaz, «euskaltegiko ariketak eta idazlanak alde batera utzi» behar izan ditu.

Gehiago ere bada: «euskaltegian hasi nintzenean eskolako guraso, irakasle eta semeekin, baita solaslagunekin ere euskaraz solas egiten hasi nintzen eta hori pixka bat galdu dudala sentitu dut». Etxeko ttikiak izan dira arnagune, eta haiekin eutsi dio euskaraz solastatzeko ohiturari baina «eurekin egoerak ez dira berak».

Etxetik plazarako bidea hartzen hasiak diren honetan Euskaraldiari begira hasia da Lekarozen bizi den iruindarra. Joan den urtean belarriak prest izan zituen eta aurten aho bizi izan nahi luke: «iaz lotsa galtzeko eta konfort eremua zabaltzeko baliagarri izan zitzaidan eta...».

«Urteko ia ekitaldi guztiak bertan behera utzi behar izan ditugu»

ANGEL MARIEZKURRENA DESKARGA KULTUR EKITALDIEN ANTOLATZAILE ERATSUNDARRA

Kantu zaharren bazkariak, kantaldiak... hamaika ekitaldi antolatu ditu azken urteetan Mariezkurrenak Euskal Herrian barna

ENERITZ IRAOLA

Kantu zaharrak abesten behar zuten ehunka lagunek uztailaren 11n Iruñean eta guztien gidari Angel Mariezkurrena eratsundarrak. Ez zen halakorik izan, ordea, beste hainbat ekitaldiren artean, kantu zaharren bazkariak ere bertan behera gelditu direlako. Krisiak gogor jo du kulturgintza eta bere azalean bizi du Angelek, baina aurrera egiteko ilusiorik ez zaio falta, «jendeari bizipoza eman nahi diot».

Guztia hankaz gora

Jantzi zuri-gorriak soinean, gorritz seinalatutako eguna zen uztailaren 11koa Angelelantz: «jendetza elkartzekoa zen. Maiatzean jarri genituen sarrerak salgai, banituen hiru autobus lotuak Donostiatik...» eta koronabirusa ailegatu zen, «guztia hankaz gora jartzeko». Ez da izan bertan behera utzi behar izan duen ekitaldi bakarra: «2019 urte bukaeran lotuak izaten ditut 2020ko ekitaldi gehienak. Bataz beste, Euskal Herrian antolatzen ditudan hogeita bi ekitalditatik hemezortzi bertan behera gelditu dira». Alarma-egoera indarrean jarri zenean hainbat proiektu zituen esku artean: «Etxalarko kantu zaharren kantaldia prestatzen ari nintzen, lehenbiziko astean ekitaldiak lotuak nituen ETBrek, Maulen ere bai». Hasiera hartan bakarren bat atzeratzen saiatu bazen ere, «berehala



Euskal Herrian barna hainbat kantaldi eta ekitaldi antolatzen ditu. ARGIA/ D.BLANCO

argi eta garbi ikusi nuen bertan behera utzi behar nituela».

Kaskateko gogorra

Geroztik, argi dio: «egoera ez da erraza. Kultur arloa gogor astindu du. Ez bakarrik kantu zahar edo kontzertuei dago kienean; herriko jaiak, dantzak, kantuak, artisau azokak... urte osoko ia lan guztiak galdu ditugu». Ekonomikoki zuzenezuzenean eragin dio Angeli: «Kaskateko handia izan da. Ekitaldiak ematen duen diru-sarrerarik gabe gelditu eta alde aurretik eginak dauden gastuak ordaindu behar dira. Aretoen erreserbak, artistak, abestien bertsoak egiten dituzten musikariak... lan horiek eginak daude eta ordaindu

egin behar dira». Orain helburua, «aurtengo urtea nola pasa pentsatzen ari naiz, heldu den urtean aurrera segitzeko». Uda ondorengo ekitaldietan jarria du esperantza: «martxan ditut hiruzpalau ekitaldi eta ilusio handiz nago. Badut esperantza urtea bukatu aurretik zerbait lortzeko».

Urriaren 4an Baluartan

Urriaren 4an Iruñeko Baluartan egitekoa du konfinamendu ondorengo lehenbiziko ekitaldi jendetsua: «hasiera batean Barakaldoko BECen egitekoa genuen, 6.000 pertsona sartzen ziren tokian. Azkenean Baluartan eginen dugu. 1.500 pertsona kabitzen dira, baina guk 500 bat lagu-

nentzako aforoa izanen dugu, segurtasun berme guztiak betez».

Dantxarinako kantuzaharren bazkaria izanen da hurrengoa: «azaroko azken larunbatean egiteko asmoa dugu». Aforoa arazoa izaten bazen, aurten are gehiago: «500 lagun sartzen ziren tokian, orain 150 bat sartuko lirateke, gehiago ez. Etortzen diren talde guztietatik jende kopuru txiki batek etorri beharko luke». Partehartzaile gutxiago izanen bada ere ilusio handiz hitz egin digu: «konfinamenduan gine-la, Beñat, Aitor eta Frantziskori deitu nien esanez, kantu zaharren bazkaria besterik ez bada laurok eginen genuela, urtea galdu gabe. Orain kopurua zabaltzen ari da eta hango giro berezia berriz sortuko dela jakinda, pozik nago».

Herritarren jarrera

Jendea dantzatzeko, gozatzeko, ospatzeko... gogoz dagoela dio, «baina era berean kontzientziatuta daudela iruditzen zait». Horren erakusle da bere ustez sanferminetan jendeak izan duen jarrera: «bakoitza bere lekuan egon da, herritarren erantzuna oso ona izan da».

Esker ona

Azken hilabeteetan hil direnak, osasun arloko pertsonak eta hedabideak ere gogoan eduki nahi izan ditu: «gure aurreko belaunaldiak izan dira dena eman digutenak eta bazterrean utzi ditugula dirudi, haiekin ahaztu izan bagina bezala. Haiek eman digute kantuz eta dantzez bizitzeko aukera. Eta osasun arloko pertsonak, kazetariak... ere gure esker ona merezi dutela uste dut, egingadako lana izugarria da. Horregatik dago gogoz aurrera egiteko, «jendeari bizipoza eman nahi diot. Birusak kanpoan segitzen du eta honekin bizitzeko ikasi behar dugu, baina bizitza bizi egin behar dugu. Ahal den bezala aurrera egin behar dugu».

Baserritarren azokak segida izanen du udan

Uztailaren 25ean, abuztuaren 1ean eta 22an eta irailaren 5ean eta 19an egingen dute

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 9an egin zuten Leitza eta Aresoko baserritarren aurreneko azoka. Geroztik, larunbatero izan dute ekoizleek eta erosleek hitzordua karrapean *Baserritik etxera* dinamikari segida emanez. Aldiro ehun pertsona baino gehiago bildu dira azokan, aurretik egindako eskaerak biltzera batzuk eta momentuan bertan eroatera besteak.

Ekimen bereziak

Udan ere, segida izanen dute azokek. Uztailaren 25ean izanen da hurrengoa eta abuztuaren eta irailean astero egin beharrean hamabostean behin antolatzea erabaki dute. Hortaz, abuztuaren 1ean eta 22an eta irailaren 5ean eta 19an egingen dute. Azokak girotzeko ekimenak antolatzen ere se-



Herritarrak azokan erosten.

giko dute. Orain artekoetan, Jakoba Errekondoren kontsultategia eta bertako produktuekin ekoiztutako pintxoak dastatzeko aukera izan dute.

Leitzako eta Aresoko hama-bi baserritarrek eramaten dituzte beraien produktuak azokara: barazkiak, lekaleak, etxean prestatutako jakiak, haragiak, esnekiak... nahi duen orok izanen du eskuratzeko aukera karrapean 10:00etatik 12:30era.



UDALA

Aizango bidea auzolanean txukundu dute

Nafarroako Gobernuak ardura bere gain hartzen ez zuela ikusita, auzolanean txukundu dute Aizango bidea (antinarako bidea). Udalak materiala eman, makineria alokatu eta hainbat tresna utzi dizkie. Jo eta ke aritu dira lanean eta bidea moldatu, ubideak garbitu, desbrozatu eta berdindu dute.



Etxeko alkohol kontsumoa asko hazi da konfinamendu garaian.

Alkoholarekin dugun harremanari buruz hausnartzeko kanpaina jarri dute martxan

TTIPI-TTAPA

Ipar-mendebaldeko prebentziko teknikariek, tartean, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzukoek, udako kanpaina egin dute elkarlanean. Itxialdi garaian alkoholaren kontsumoak goraka egin eta normalizat jo dela ohartu dira teknikariak. Horrek ezka eragiten die profesionali, «gizartean arazo gehien sortzen dituen droga delako alkohola».

Izan ere, lehen kale eta taberna giroan egiten ziren kontsumoak etxean integratu ziren konfirmamenduan (pintxopote birtualak, igandeetako bermuta...). Gaineratu dute errealitatea ongi irudikatzen dutela handik eta hemendik, etengabe, bidali dizkiguten eta guk birbidali ditugun mezuek: «irrikan nago ateratzeko, munduko garagardo guztia

edateko, orain arte edan ezin izan dudana guztia egun batean hartzeko zioten, beti ere umore puntu horrekin, baina premiazko nabardura batekin, behararekin, lehentasunarekin eta, noski, alkohola lehen lerroan eta, ziur aski, neurritz kanpoko balioa emanez».

Horregatik guztiagatik uste du komenigarria litzatekeela alkoholarekin daukagun harremanaren inguruko hausnarketara egitea: «pasatu duguna pasatuta, argi izatea garrantzitsua ez dela pote bat hartzeko aukera ez izatea, garrantzitsua maite ditugun pertsonekin egon ezin izatea dela». Ohitura osasuntsuei dagokien tokia egitera animatu nahi dituzte herritarrak: «orain inoiz baino gehiago *geure burua zainduz, besteak zaintzen ditugu* mezua gure egin eta zabal dezagun».

Kontribuzioa bi zatitan kobratuko du udalak

Udalak jakinarazi du orain arte azaroan kobratu izan den kontribuzioa, aurrerantzean, bi zatitan pasako dutela. Uztaillean kobratuko dute lehenbiziko zatia eta azaroan beste erdia. Herritarrei ordainketak erraztu nahi dizkiete horrela eta likidezia.

Udako ordutegia izanen da irailera arte liburutegian

Uztailaren 1az geroztik liburutegi zerbitzua pixkanaka lehengora bueltatzen ari dela esan daiteke. Edukiera %75era zabaldu dute eta haur aretoan %50era, nahiz eta segurtasun neurriak bete beharko diren. Irailaren 14ra arte, 08:30etik 14:30era egonen da zabalik.

«Emakumeen beharrak identifikatu eta asetzea dugu helburu»

ANA HUIZI MANTEROLA GOIZUETAKO MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEA

Udazkenean sortu zen Goizuetako Mugimendu Feministako kidea da Ana Huizi. Orain arteko ibilbideaz, martxan duten erakusketaz eta aurrera begirako asmoez aritu da TTIPI-TTAPAREKIN

NEREA BAZTERRIKA

Kontzeptu bakarrak hamaika adiera izan ditzakeela erakutsi du Goizuetako Mugimendu Feministak uztailean egin duen *Zuretzat zer da emakumea?* erakusketan. Marrazkiak, abestiak, testuak... biltzeko deia egina zuten eta jasotakoa uztailearen 23tik 26ra, ostegunetik igandera, ikusgai izanen da Labaderoan. Herritarren ikuspegitik abiatuz, «emakumeen beharrak identifikatu eta horiek asetzeko» lan egin nahi dute, eta, horretarako, hamabost egunean behin, asteazken ilunabarretan, udaletxean bilduko dira.

Noiz sortu zen Goizuetako Mugimendu Feminista?

Joan den urteko irail-urri aldera. Autodefentsa tailerra egin nahi zen eta horren harira hasi ginen, tailerra aurrera eramateko interesik bazen edo ez ikusteko herriko emakumeekin bilduz.

Lehendik ere autodefentsa tailerrak egin izan dira... Ez da hala?

Bai, baina parte-hartze eskasa zutela ikusita, beste modu bateko parte-hartzea bultzatu nahi izan genuen. Ahoz aho zabalduz, taldeari hasiera eman genion.

Zein dira taldearen helburuak?

Oraindik taldeari forma emateko prozesuan gaude, helburuak argitzen eta hauek nola landu aztertzen. Bide honetan, emakumeen beharrak identifikatzea eta asetzea eta kezak lantzea dugu oinarrietako bat.



Elkarrengandik ikasteko gogotsu dago Goizuetako Talde Feminista.

2019ko udazkenean hasi zineten eta hilabete gutxiren buruan konfinamendua hasi zen. Hasiera, beraz, ez da erraza izan...

Itxialdiaren aurretik, martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, ospatu genuen herrian; ondoren, ordea, den-dena gelditu zen bai erakusketa baita autodefentsa tailerra ere. Erakusketa martxan da dagoeneko eta autodefentsa tailerra urri aldera egingen da. Aurrerago zehaz-

tuko ditugu datak eta parte-hartzea irekia izanen da.

Apirilean egitekoa zenuten *Zer da zuretzat emakumea?* erakusketa uztailean egin duzue. Zer da horretan bildu nahi izan duzuen?

Herri mailan *emakume* gisa zer ulertzen den ikusi nahi dugu, herritarren ikuspuntua bildu eta bertatik lanean jarraitzeko. **Zer-nolako harrera izan du erakusketa deialdiak?**

Harrera positiboa izan da, hainbat motatako lanak jaso

ditugu: testuak, marrazkiak, poemak, abestiak, etab.

Uztailearen 23tik 26ra Labaderoan izanen da ikusgai. Zer ikusi eta ikasiko du bertaratzen denak?

Zuretzat zer da emakumea? galderaren bidez hausnarketara joko du eta galdera hori erantzuteko egon daitezkeen ekarpenak ikusi ahal izanen ditu. Zenbait genero, adin eta eremutako jendeak parte hartzeko aukera duenez, *emakume* gisa ulertzen dugunarekiko ikuspuntuak bildu dira bertan, adierazpen modu anitzetan. Bakoitzak istorio edo esanahi anitzak izan ditzakeela ikusi ahal izan dugu. Orain, ikustera etorri parte har daiteke.

Leitzako Mugimendu Feministarekin elkarlanean aritu zarete. Egitasmo honetan bakarrik edo sorreratik?

Sorreratik beraiekin harremanetan jarri ginen beraien lan egiteko moduaren berri izateko eta hartu-emanen elkarrengandik ikasteko. Ekimen hau elkarrekin egitea anitzagoa eta polita izanen dela iruditu zitzaigun eta halaxe egin genuen.

Erakusketara ez ezik, emakumeak taldera ere gonbidatu nahi dituzue... Gaur gaurkoz, zenbat kide zaudete taldean?

Taldean zortzi emakume gaude, lehendik harremanik ez genuenak. Politia da horrelako espazio batean ezagutu, elkarrengandik ikasi eta harremanak estutzea. Gainera, herrian interesa ikusten da eta taldea irekia denez, edozein momentutan parte hartzera anima daitezke. Norbere bizipenetatik abiatuz herri mailan jarri nahi dugu begia eta horretarako gonbidapena luzatu nahi dugu. Hamabostean behin biltzen hasiko gara, asteazkenetan, 19:00etan, udaletxean. **Aurrera begira, zein da mugimenduaren asmoa?**

Lanean jarraitzeko intentzioa dugu, ekintza dezente ditugu buruan; herriko haur, gazte eta helduekin lantzeko. Gogotsu eta indartsu gaude.

«AUTODEFENTSA
TAILERRA URRI
ALDERA EGINEN
DUGU»

«BI ASTEZ BEHIN
ASTEAZKENETAN
BILTZEN HASIKO
GARA»

Udalak eskainitako 300 erosketa bonuak saldu dituzte

Uztailaren 10ean eta 11n izan zuten herritarrek txartelak eskuratzeko aukera

TTIPI-TTAPA

Udalak herriko komertzio eta zerbitzuak indartu, itxita egon direnei esku bat bota eta lanean jardun duten guztiei eskerrak emateko kanpaina berezia jarri du martxan. 300 erosketa bonu jarri ditu herritarren eskura; hogeituroren truke, bost euroko bost erosketa bonu lortzeko aukera emanez.

Uztailaren 10ean, arratsaldean, eta uztailaren 11n, goizean, izan zuten txartel hauek erosteko aukera hamasei urtetik gorako herritarrek eta larunbatean 11:00etarako

salduak zituzten guztiak. Orain, uztailaren 13tik abuztuaren 30era arte izanen dute bonuak erabiltzeko aukera.

Herriko hainbat saltokik, ostaturak eta jatetxeek parte hartu dute kanpaina honetan. Zehazki, Zubidendan, Coviranen, harategian, farmazian, estankoan eta arropa dendan, Izkinan, Mutun, Zubiondon, Oxeguardan, Ixkibin, Amaia kafetegian, Irati ileapaindegian eta Kiribil ileapaindegian bost euro baino gehiagoko erosketa egiten dutenean erabili ahal izanen dituzte bonuak.



Uztailaren 11n jokatu zituzten herriarteko partidak Lekunberrin.

Larraun eta Goizueta arteko lagunarteko pilota txapelketa berriz ere martxan

TTIPI-TTAPA

Martxa berreskuratzen hasiak dira esku-pilota elkarteak. Uztailaren 11n Lekunberrin jokatu zituzten herriarteko txapelketako partidak eta herriko pilotariak Larraungoak izan zituzten aurkari. Benjaminetan, Alsua eta Aranberri Goikoetxea eta Legarraren kontra aritu zi-

ren. Alebinetan, Salaberria eta Lujambio, Olleta eta Ijurkoren kontra. Infantiletan Legarreta eta Elizegi, Galarza eta Goldarazenaren kontra eta nagusietan, Aizkorbe eta Apezetxea, Galarza eta Gurrearen kontra. Uztailaren 18an jokatzekoak zituzten bueltako partidak herriari.



ALAITZ ESKUDERO

Dama beltzak taldearen kontzertua

Martxoaren bukaeran egitekoa zen Dama Beltzak taldearen kontzertua. Jai batzordeak, orduan egin ezinik utzitako kontzertua uztailean egitea proposatu zuen, eta hala larunbat arratsaldea goxatu zieten herritarrei Estitxu Pinatxo eta Mikel Santzek bertsionatutako bost dama beltzen doinuek.



ALAITZ ESKUDERO

Auzolanen herria txukundu dute

Auzolanerako bigarren deialdiak ere erantzun bikaina izan zuen. Hogeita hamar bat lagun elkartu ziren eta eremuka banatuta herriko txokoak txukundu zituzten: gehienbat belarrak kentzen ibili ziren, aitzurrarekin edo desbrozadorearekin. Lanaren ordainetan gero hamaiketako egin zuten Ikastolako aterpean.

Aukeratu dute aldi baterako zerbitzu anitzetako langilea

Martxoan egitekoak ziren probak, baina Covid-19aren eraginez ekaina arte geldirik egon da prozedura. Azken proba, praktikoa, ekainaren 26an egin zuten eta dagoneko ikusgai daude emaitzak. Aritz Zubiri Gamiok lortu du puntuazio altuena.

LAGA liburutegi ibiltariaren bisita uztailaren 24an

Liburutegi ibiltariak uztailaren 24an, ostiralean, egingen du bisita Aranora eta Goizuetara. Lehenbiziko geldialdia Goizuetan egingen du 11:00etatik 12:00etara eta segidan, Aranora joanen da bertan zerbitzua 12:30etatik 13:00etara eskaintzeko.

«Etorkizunerako bidea irekia utzi behar diegu gazteei»

JOXAN RUIZ MINER ARANOKO ALKATEA

E.IRAOLA ARANO

Umetan bisitaria zenak, sus-traiak bertan bota eta agintemakila hartu zuen 2019ko maiatzean. Urtebeteko ibilbideari errepasoa egin eta dituzten erronkei buruz hitz egin du TTPI-TTAPAREkin.

Nola iritsi zara alkate izatera?

Aurreko bi legealditan, Ainhoa alkate zela, alkateorde izan nintzen. Herri txiki hauetan ez da izaten jende asko kargua hartu nahi izaten duenik. Zaila da udaletxeko lanak hartu nahi izatea. Are zailagoa ikusirik hemen belaunaldi bat ia ia galdu zela... badira 18 urtera arteko ia hogeita hamar ume eta gazte. Hemezortzi urtetik hogeita hamar artekorik ez da, ez dago sokari segida emanen dionik adin tarte horretan. Pixka bat hasi genuen proiektuari segida emateko alkatezta hartu nuen. Ari gara gauzak ahalik eta txukunen egiten saiatzen.

Aldaketa handia izan da zuretzat?

Uste baino ardura handiagoa izan da. Alkateorde nintzela ikusten nuen Ainhoa egiten zuen lana baina behin kargua hartuta, gauza asko daude egiteko eta ardura handia dela iruditzen zait. Herri txikietan gauzak ez dira beti ateratzen batek nahi duen bezala. Baliabide gutxi ditugu eta azpiegitura gutxi, eta hori kudeatu egin behar da, baina lantalde polita sortu dugu Xabi Cueto, Xabier Legarreta, Kontxi Klaber eta Jon Mari Berasainek.

Ikusten ez den lan asko dago?

Burokrazia asko dago. Bilertan eta paper artean ordu asko ematen ditugu. Covid-19ak erakutsi digu bilera telematikoa egiten eta ohiturari eus-



Joxan Ruiz Miner. OIER RUIZ

ten diogu. Komunikazioa asko hobetu da eta horrek erraztu egiten digu lana.

Azpiegiturak hobetzea izaten da udalen buruhauste handienetakoa.

Dirulaguntzetatik tiraka ari gara. Aurten araztegiaren porietua dugu martxan, NILSAk egiten diguna. Guk gure partetik saneamendu sarea berri dugu. Hor sartu ditugu gure diru pizarrak. Kanpotik ikusten ez diren lanak dira, baina beharrezkoak. Nahi genuke frontoi berri bat, estalia... baina eskura dugunari eutsi behar diogu.

Maisuenea lorpen handia izan zen...

Aurreko legealdian lortu genuen eta behar beharrezko aretoa zen. Hemen ez dugu

«IKUSTEN EZ DEN LAN ASKO EGIN BEHAR IZATEN DA UDALEAN»

toki estalirik eta negua luzea da. Behar genuen aterpe bat. 122 biztanletik 25etik gora haurrak dira.

Beraiek dira etorkizuna...

Etorkizunerako bidea irekia utzi behar diegu gazteei. Bertan bizi eta bertan lan egiteko aukerak eskaini. Etxebizitzaren gaia landu beharko dugu, hemen geldi daitezten, lanpostu batzuk sortuz industrialdea aktibatuz, lehenbiziko sektorea indartuz baita turismoa ere. Ea bertan gelditzen zaizkigun eta ez zaigun lehenago gertatutakoa pasatzen. Uste dut orain dela zerbait egiteko momentua. Horrekin batera, ez dugu ahaztu behar adineko pertsonen, jubilotekarekin aisialdirako aukera eman diegu herrian.

Landa eremua modan dagoela dirudi...

Nabaritu dugu geroz eta bisitari gehiago ditugula. Erreken inguruan jende asko biltzen da eta arazoak ditugu zaborrak biltzen ez dituztenekin. Eskuorriak banatzen aritu gara Goizuetako alkatea eta biok, baina hurrengo egunean ere zaborra agertzen zen izkinetan. Arazoa landu eta kontzientziazio kanpaina bat egin beharra dugu. Jendea etortzea nahi dugu baina ingurua zainduduz.

Garraioa da beste erronketako bat?

Ohituta gaude, urteak direlako ez dugula zerbitzurik. Kottxea behar dugu denerako. Nafarroako Gobernuarekin bilera batzuk egiten hasi ginen Leitza-Hernaniko linea berri-tuko zela esanez, baina hortan gelditu da. Gure gaztetxoekin ere atzera eta aurrera ibili behar izaten dugu. Goizuetako eskolarako badugu garraio zerbitzua baina Leitza instituturara joateko badakigu jangela eta garraioarekin nahiko komeriekin dabiltzala. Urtebeteko moratoria lortu dute baina gero zer? Gobernuok kontuan izan behar dute hemengo errealitatea, kilometro asko egin behar ditugu.

Landarteren eskutik proiektu artistikoa eginen da herrian

Landarte programa herrian gauzatzeko asmoa dute eta horretarako herritarrekin bilerak antolatu dituzte. Kultur proiektu bat gauzatzea da asmoa, Nafarroako landa ingurunean herrietako jendearekin batera lan egitea. Bestelako jarduera artistiko zeharkakoekin edo osagarriekin fusionatzen da eta tokian bizi diren artistek lagunduta gauzatzen da.

Herritarrek hasiera-hasieratik parte hartzen dute eta auzolana bultzatu, herriaren ondareari balioa eman eta tokiko nortasuna indartzen laguntzea da helburua. Izan ere, antolatzaileek diotenez, «ideia berritzaileak eta talde-lana batzen direnean balio kultural handiko obra bereziak sortzen dira eta herritarrak haiekin identifikatzen dira».

Herriko festak bertan behera utzi dituzte

«Aurten ez dira Santio festak ospatuko, ez behinik behin betiko eran». Halaxe adierazi dute festen batzordeak, Jalki kultur taldeak eta udalak ohar bidez. Jende elkarketa handiak ekidin nahi dituzte horrela, birusaren kutsatzea mantso-tzeko.

Harategi zerbitzua berriz ere martxan jarri dute

Goizuetako harakinak berriz ere zerbitzua eskainiko du herrian. Ximonek urtetan egin bezala, Juan Ramon Lizarragak, Goizuetako harakin berriak, zerbitzua emateko asmoa du. Udalak eskertu egin du aukera hau herritarren eskura jarri izana.

Udako hainbat ekitaldi dakar Kultur 2020 programak

Hasteko, uztailaren 23an Feten Feten musika taldea izanen da Donamarian eta 30ean Brodas Bros Hipstory Elizondon

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatzen duen Kultur programaren 25. edizioa izanen da aurtengoa. Ortzegun, ortzirale, larunbat eta igandeetan egingen dute, uztailaren 18tik irailaren 13ra bitartean, 36 herri eta intereseko gunetan, musika, dantza eta artea eskainiz programazioren barrenean. Larunbatetan, gainera, eskualdean eginiko turismo-jarduera batek osatuko du kultur proposamena, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz. Eskualdean ere hainbat ekitaldi izanen dira, zehazki, Beran, Donamarian, Elizondon, Leitzan eta Zugarramurdin. Gainera, Bertizko jaurreriko jauregiak Pedro Salaberriren *Bideak* erakusketa hartuko du.

Aurten, Covid-19a dela eta, segurtasun- eta osasun-neurriak hartuko dira udalekin elkarlanean, osasun-agintariek ezarritako araudia betetzeko. Tokiko entitateek kontrolerako osasun-neurriak errespetatuko dituzte emanaldiak egingen diren azpiegituretan.

Kultur 2020 eskualdean

Eskualdeko lehenbiziko ekitaldia **uztailaren 23an** izanen da Donamarian. Feten Feten musika taldeak emanaldia eskainiko du ortzegunean 21:00etan plazan. Musika fresko, dibertigarri eta oso dantzagarria da, mota askotako estiloak nahasten dituena, hala nola, fox trota, txotisa, jota, seguidilla, erronda, pasodoblea eta habanera. Musika-bidaia bat, gure penin-

tsulatik bertze lurralde batzuetara eramaten gaituena: Balkanetako oihartzunak, manuoche ezaugarriak, japoniar ukituak, kaioen kantuak eta itsasoaren soinua bera.

Uztailaren 30ean, Brodas Bros Hipstory dantza taldeak, hip-hop dantzak eskainiko ditu Elizondon, ortzegunean 20:00etan hasita Braulio Iriarte pilotalekuan.

200.000 ikuslek baino gehiagok ikusi dituzte beren emanaldiak, eta SDK munduko txapelketa, 2012ko Eurobattle txapelketa eta Justedebout Spain (hainbat aldiz) irabazi dituzte. 2017an, Max Sarietarako izendapena lortu zuten antzezle-zerrenda hoberenarengatik, eta 2018an, kaleko ikuskizun hoberenarengatik.


Abuztuaren 22an Zugarramurdin, Tipitako musika taldeak kontzertua eskainiko du Sorginen lezean 18:00etan. Leizera sartzeko prezioa 4,50 eurokoa da.

Irailaren 12an hitzordu bi-koitza izanen du Kultur egitarauak eskualdean. Larunbatean 20:00etan Roland & Loop Abestiak abeslari eta musikariak kontzertua eskainiko du Leitzako plazan eta 20:30ean Berako Herriko Etxeko plazan kontzertua eskainiko du Iruña Jazz Big Band Meets taldeak.

Egun berean, Leitzan bisita gidatua eskainiko dute Peru Harrira, larunbatean 11:30ean. Helduek 4 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 3 euro. Guttinez 10 pertsonen parte hartu beharko dute. Erreserbak: 659 70 10 45 edo peruharri@hotmail.com.



Feten Feten Donamarian eta Brodas Bros Hipstory Elizondon izanen dira.



Pedro Salaberriren margolanak ikusgai daude Bertizko jauregian.

'Bideak' erakusketa Bertizen

Uztailaren 18tik abuztuaren 30era Pedro Salaberriren 'Bideak' margo erakusketa ikusgai dago Bertizko Jauregian. Asteleheneetik igandera, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara irekiko dituzte ateak. Pedro Salaberrik dioenez, «ezagutzen dudun gozagarririk onenetako bat paseo lasaiak ematea da, zuhaitz eta soroen arteko bideetan edo landaretzan barna urruneko mendi eta ibarrak antzematen diren basoetan. Paseo horietan, hotzak, beroak edo euriak momentu horretan buruan dudana atzean utzi, eta kosmoseko planeta txiki batean bizi naizela eta harekin ongi moldatzea niretzat ona dela kontatu ahal didate. Nire estudioan, betiereko itzulera lortu nahian, islatuko ditudan irudiz betetzen naute paseo horiek».

BAZTAN

ESKUTITZA

MIXEL GEREKA ZELAIA
SAHARAZTAN ELKARTEAREN IZENEAN

Oporrak bakean

Covid-19ak 'Oporrak bakean' egitasmoa ere hankaz gora jarri du. Urtero bezala, sasoi honetan gure eskualdean egonen lirarteke Saharar Herriko enbaxadore gazteak. Urtero gogorarazten digute zein den beraien zoritxarreko egoera latza Tindoufeko errefuxiatu kanpamentuetan. Aurten baina, Covid-19 dela eta ezin izanen dute handik atera eta beste urte batzuetan baino gogorragoa izanen da 'oporrik gabeko' uda itogarria.

Ume sahararrak ezin izanen dute gure artean egon eta ezin izanen gaituzte beraien irrifarreekin alaitu. Halere, Saharaztanek tinko jarraituko du urteroko 'Oporrak bakean' egitasmo eta konpromisoarekin, eta umeek ezin izan badute kanpamentuetatik atera, gu hurbilduko gara haiengana momentuz ahal dugun modu bakarrean: gure elkartasun eta laguntza eskainiz. Horregatik, uda honetan guregana hurbiltzekoak ziren hamar neska- mutikoak ekartzeko genuen aurrekontua kanpamentuetan laguntza bideratzen duen Media Luna Saharauri-ren eskutan utziko dugu, orain inoiz baino beharrezkoa duten janari bilketa kanpaina aurrera eramateko.

Saharaztanek bere sorreratik duen Saharar Herria laguntzeko asmoarekin segiko du, sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik.

Sahara sahararentzat!



Aurten etortzekoak ziren 10 neska-mutikoek ez dute etortzerik izan.



UTZITAKOIA

Baztandarra txirrindulari taldea martxan

Konfinamendutik arintzearekin batera, Baztandarra txirrindulari taldea, berriz ere, inguruko txokoez eta uda giroaz gozatzeko hasia da. Uztail hasieran, erraterako, kadeteek Iruritatik abiatu eta Arizkun eta Elbeten barrena egin zuten buelta.



IÑAKI ATXA

Iñaki Atxaren argazkia Frantzian saritua

Iñaki Atxa elizondorak sari bat jaso du Frantziar estatuan, *Prenons la pause* izeneko elkarteak antolatutako lehiaketan. 17 herrialdeetako 438 argazkilarik parte hartu dute, denara 3.092 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara. Atxak ateratako arrano beltza 'Mendiko animaliak' atalean hautatu dute.

BRIKO BAZTAN, SL
Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra
Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak
T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitopenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Artearen erakustoki izanen da Baztan urrira bitarte

Margolanak eta eskulturak ikusgai izanen dira Elizondon, Erratzun eta Arizkunen

TTIPI-TTAPA

Artisten erakustoki bihurtuko da uztailetik urrira Baztan, urteetako ohiturari jarraiki, aurten ere, Artearen Ibilbideak edertuko baititu bazterrak.

Uztailean ireki dituzte lehenbiziko erakusketak, eta dagoneko ikusgai daude Jose Luis Altzugarai Galarregiren, Diana Iniestaren, María Iciar Muñozen, Xabier Soubeleten eta Teresa Lafraguaren margolanak, baita Santxotena parke museoako eskulturak ere. Lesagibelen eskultuz eta Tomas Sobrinoren pintzeladaz gozatzeko, artezaleek uztailearen 31ra eta abuztuaren 1era arte esperatu beharko dute, hurrenez hurren.

Jose Luis Altzugaraien lanak
Urrira arte, asteazkenetik ortziralerara 18:30etik 20:30era eta asteburuetan goizez (12:00eta-

tik 13:30era) eta arratsaldaz (18:30etik 20:30era) Elizondoko Jaime Urrutia karrikan ikusgai izanen dira Jose Luis Altzugaraien lanak.

Diana Iniestaren 'Street live'

Erratzun, Diana Iniestaren pintura tailerrak ere atek irekita ditu eta irailaren 5era arte egunero 18:30etik 20:30era bisitatu ahal izanen da *Street life* erakusketa.

María Iciar Muñozen pintzeladak

María Iciar Muñozen sormen lanez gozatzeko heldu den astearte, hilaren 28a, izanen da hondarreko eguna. Egunero 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan baita goizez (11:00etatik 13:30era arte) ere ikusi ahal izanen dira Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.



María Iciar Muñoz margolariak ireki du Baztango Artearen Ibilbidea aurten.

Lesagibelen eskultura erakusketa

Muñozen erakusketaren ondotik, Lesagibelen lanek hartuko dute kultur etxea. Uztailearen 31tik abuztuaren 30era 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara ikusleek bertaratzeko aukera dute.

Xabier Soubeleten azken lanak

Soubeleten azken lanak ezaugu eta aitzinekoak oroitu nahi dituztenek Arizkongo Sasternea etxera jo dezakete, ortzegunetik igandera (12:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara).

Tomas Sobrino

Modos de ver erakusketa abuztuko astegunez (18:00-21:00) eta

asteburuetan (11:30-13:30 eta 18:00-21:00) bisitatu ahal izanen da Tomas Sobrinoren eskutik, Elizondoko Arizkunenean.

Santxotena parke museo

Arizkongo Bozateko Santxotena eskultura parkea abuztuko azken igandera arte irekita dago asteartetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era eta igandetan goizez.

Teresa Lafragua artista

Artearen Ibilbideak egin duen 17 urteetan gibeleragiteko erakusleioa bildu du Lafraguak Bozateko eskultura parkean. Abuztuaren 30era arte Santxotenenaren lanen ordu-tegi berean ikusi ahal izanen dira.

ARTEAREN IBILBIDEA

2020  Baztango Udala

Informazio gehiago:
T. 948 581 279 - www.baztan.eus



JOSÉ LUIS ALZUGARAY GALARREGUI
PINTURA ERAKUSKETA
Jaime Urrutia 3, behe - ELIZONDO
Uztailearen 15etik urrira arte
Asteazkenetik ortziralerara: 18:30-20:30
Asteburuetan: 12:00-13:30/18:30-20:30



DIANA INIESTA
PINTURA ERAKUSKETA
"Street life"
Diana Iniestaren pintura tailerra
ERRATZU
Uztailearen 20tik irailaren 5era
Egunero irekita: 18:30-20:30



MARÍA ICÍAR MUÑOZ
PINTURA ERAKUSKETA
Arizkunenea KULTUR ETXEA,
ELIZONDO
Uztailearen 31tik 28ra
Egunero irekita: 18:00-20:30
Larunbat eta besta egunetan:
11:00-13:30 / 18:00-20:30



LESAGIBEL
ESKULTURA ERAKUSKETA
"N-estetika 4"
Arizkunenea KULTUR ETXEA
ELIZONDO
Uztailearen 31tik abuztuaren 30era
Egunero irekita 11:00-14:00 / 18:00-21:00



XABIER SOUBELET
PINTURA ERAKUSKETA
Casa Sasternea etxea. ARIZKUN
Azken lanak eta aurrekoak
Uztailearen 16tik irailaren 5era
Ortzegunetik igandera
12:00-13:30/16:30-20:00



TOMÁS SOBRINO HABANS
PINTURA ERAKUSKETA
"Modos de ver"
Arizkunenea KULTUR ETXEA
ELIZONDO
Abuztuaren 1etik 30era
Asteleheneetik ortziralerara: 18:00 - 21:00
Larunbat eta besta egunetan:
11:30 -13:30 /18:00 -21:00



SANTXOTENA PARKE MUSEOA
ESKULTURA PARKEA
BOZATE, ARIZKUN
Uztailearen 15etik abuztuaren 30era
Asteartetik larunbatera
11:00-14:00 / 16:30-19:30
Igandeak 11:00-14:00



TERESA LAFRAGUA
PINTURA ERAKUSKETA
Santxotena Parke Museo
Eskultura Parkea
BOZATE, ARIZKUN
Uztailearen 15etik abuztuaren 30era
Asteartetik larunbatera:
11:00-14:00 / 16:30-19:30
Igandeak: 11:00-14:00



Brodas Bross Hip Hop taldearen emanaldiak irekiko ditu kultur ekitaldiak.

Dantza, musika eta antzerkia uda honetan Elizondon

Emanaldiez gozatzeko ordaindu beharrik ez da izanen baina edukiera mugatua izanen da

TTIPI-TTAPA

Kultura guztien eskura paratuko dute eskualdeko hainbat herritan aurtengo udan. Bessetako ekitaldiak eta bertzelako ospakizunak ez dauden honetan, dantza, musika eta antzerkia izanen dituzte gozagarri uztail bukaeran eta abuztu hasieran. Emanaldiak doan izanen diren arren, segurtasun neurriak bete ahal izateko edukiera mugatua izanen da.

Brodas Bross uztailaren 30ean Kultur 2020 programaren barne, Brodas Bross Hip Hop

nazioarteko taldeak eskainiko du udako lehenbiziko emanaldia. Elizondoko Braulio Iriarte frontoian dute hitzordua 20:00etan.

Biharamunean Estitxu Pinatxo Uztailaren 31n, ortziralean, Estitxu Pinatxo musikari berarrak *Haize gorri batek* lana aurkeztuko du, toki eta ordu berean.

Trapu zaharra abuztuaren

Abuztuaren lehen Trapu zaharra taldeak *Turistreatzen* lana eskainiko du, frontoian, 20:00etan hasita.

Artisauen azoka heldu den larunbatean Bertizen

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko artisauak osatzen duten Argitsu elkarteak txokoz txoko produktuak erakusten hasia da. Uztailaren 19an Erratzun izan ziren eta uztailaren 25ean, Bertizen dute hitzordua. 10:00etatik 14:00etara ikusi eta erosi ahal izanen da.



Garbiñe Elizegiren aurkako epaiketaren gastuak bere gain hartuko ditu udalak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 25eko osoko bilkuran, Garbiñe Elizegi alkate ohiaren eta Aroztegia Jauregiaren arteko epaiketaren izandako gastuen ardurua bere gain hartzea erabaki zuen Baztango Udalak, EH Bilduren eta Ezkerraren aldeko botoekin. Garbiñe Elizegik proiektua «hirigintzako pelotazotza» jo zuen prentsaurrekoetan. Lehen epaia Palacio de Aroztegia enpresaren aldekoa izan zen eta ez zen gastuak nork ordaindu behar zituen aipatzen. Errekurtsoaren ondotik, justiziak Elizegiren alde egin zuen, alkate zenaren adierazpen askatasunerako eskubidea oinarri hartuta. Bakoitzak bere gastuak ordaindu behar zituela ebatzi zuen epaia. Palacio de Aroztegiak bertze errekurtsio bat jarri zuen Auzitegi Gorenean eta oraingoan ere Elizegiren aldekoa izan zen epaia eta enpresa sustatzaileak ordaindu behar zituen gastuak.

Geroa Bairen desadostasuna

Geroa Baik adierazi du ez dagoela ados Baztango Udala auzi honen gastuak bere gain har-

tzearekin, eta ez dute bat egin une hartan Garbiñe Elizegi bailarako alkate zelako gastuen justifikazioarekin. Geroa Baik argudiatu du Udaleko idazkariaren txostenak zehazten duela, Auzitegi Gorenaren epaian, ordezkapen- eta defentsa-gastuak ordaingarriak izan daitezkeen, honako hau bete behar dela: «Udalbatzako kideak bere eginkizunetan egindako administrazio-jarduera batean edo bertze mota bateko jarduera batean izandako esku-hartzean jatorria edo zuzeneko kausa duen erru-uzteak eragindakoak». Hauen ustez, «egindako adierazpenak ez dira administrazio-jarduketegi dagozkienak, adierazpen-askatasunari dagozkionak baizik, epaia jasotzen duen moduan». Eraberean, txostenak baldintza hau ezartzen du: «esku-hartze hori ez da gauzatu gehiegikeriaz, botere-desbiderapenez edo interesdunen edo talde politikoaren interes partikularrekin bat etorritz». Geroa Bairen arabera, «epaia berak gehiegikeria onartzen du Garbiñe Elizegiren adierazpenetan».



UTZITAKOIA

Baztan Futbol Taldeak Osasunara

Baztan Futbol Taldeko Izaro Urrutiak eta Berta Mugiok Baztan Futbol Taldean hasitako ibilbideari Osasunaren ematen diote segida. Taldekoek bikotea zoriontzarekin batera aukera handi hau aprobetxatzeko zorte onena opa nahi izan diete «harrobiko jokalariek eredu garriek».

Ekain akabera mugitua izan dute Berroetan

San Joan bezperan suak egin zituzten eta ondoko asteburuan herritarren arteko apustua eta kontzertua

MAIALEN IANTZI

Aspertzeko tarterik ez dute izan berroetarrek ekainean. Hasteko San Joan bezperan, suak piztu eta, ohitura zaharra mantenduz, saltoka ibili ziren herriko plazan. Ondotik, urtero bezala baina oraingo honetan segurtasun neurriak betez, su bat piztuta utzi eta ogitartekoak jateko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Grabaketak, herritarren arteko apustua eta kontzertua

Ekitaldiekin segitzeko, hurrengo ortziralean, Baztandarren Biltzarrak aurtengo bestaren hutsuneari keinu ttiki bat eginez antolatutako proiektu baterako, herritar andana elkartu zen plazan. Kanpotik grabatzera etorri ziren eta herritarrek zintzo bete zuten errandakoa.

Asteburua borobiltzeko, apostu polita antolatu zuten herriko gazteek larunbatean. lau bikote aritu ziren lehian, laisterka eta bizikletan. Kiro-lari guztiek lan bikaina egin zuten eta azkenean Unai Iantzi eta Xuban Lakosta izan ziren irabazleak. Herrian mugimendu polita sortu zen apostuaren aitzakian.

Ekitaldiekin akitzeko, astear-tean, ekainaren 30ean, kontzertu paregabea izan zen eliz atarian. Kontzertua aspaldian herrian bizi diren punta-puntako bi musikaririk (Liesbeth Baelus eta Yorrick Troman biolin-jotzaileak) eta beraien zenbait lagunek –Yann Dubost kontrabaxu-jotzaileak), Daniel Troman (akordeoilariak), Amaia Cordoba (piano-jotzaileak) eta Ion Irazoki txistulariak– eskaini zuten.



Goian apustua egin zuten herritarrek eta behegian kontzertua.

Herritar ugari elkartu ziren artista hauen lanaz gozatzeko. Horrelako artistak herrian izatea «zorte ikaragarria» dela

diote herritarrek eta ez dute eskertu gabe utzi nahi izan: «mila esker hemendik erakutsitako borondateagatik».

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

ANZABAL inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrí, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bitzita aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

«Lan handia egin dugu baina orain kontent gaude»

AINHOA AGIRRE MUSEOKO ETA LEZEKO KUDEATZAILEA

G. PIKABEA ZUGARRAMURDI

Covid-19aren eragina bete-betean sumatu dute Zugarramurdiko lezean eta Sorginen Museoa, bertzeak bertze, alarma egoera turismoa erakartzeko data onetan etorri zelako: «San Jose zubia, Aste Santua, maiatzaren 1eko zubia... Data txarrak izan dira». Halaxe aitortu du Ainhoa Agirre museoko eta lezeko kudeatzaileak, eta «ekonomikoki kolpe handia» izan dela dio. «Ziurgabetasuna» nagusi izan diren hiru hilabete izan dira, baina «tarte horretan ez gara geldirik egon» eta hainbat egokitzapen lan eginda, uztailearen lehen ireki zituzten ateak.

Agirrek azaldu digunez, «museoan eta lezean egokitzapen lanak egiterakoan bi ardatz» izan dituzte kontuan: «batetik, bisitarien zein langileen osasunaren zaintza bermatzea, eta bertetik, gurea aisialdia dela eta bisitariak naturaz eta kulturaz gozatzera datozela. Bi ardatz horiek uztartu ditugu». Bide horretan, «hasieran arriskuen balorazioa» egin eta ondorengo etorri zen «kontingentzia plan konplexua». Horretarako, hainbat alderdi izan behar izan dituzte kontuan: «museoei zuzendutako gomendioak, natura guneei zuzendutakoak, turismobulegoenak, dendeenak, bisita gidatuenak... ere. Horren arabera egokitu dugu protokoloa». Agirrek onartu du «lan handia» izan dela, eta «ez dela erraza izan», bertzeak bertze, «fasetik fasera informazioa aldatzea izan delako». Baina «gauzak zentzuz eta fase bakoitzari begira egiten saiatu» dira.

Egin dituzten egokitzapenen artean, «museoan eta lezean



Ainhoa Agirre kudeatzailea.

ibilbideak» aldatu dituzte: «pilaketak saihesteko sarrera eta irteera toki diferenteetatik egin behar da eta gel hidroalkoholikoa puntu ugarian paratu dugu». Horrekin batera, edukiera mugatu dute eta sarrerak Internetez erosteko aukera ezarri. Orain arte bezala, sarteak eskura ere salduko dituzte, baina «online bidezkoak hobetsiko ditugu».

Bertetik, apaletatik eskuorriak kendu eta «web orritik edo QR kodearekin deskargatzeko aukera» jarri dute eta «museoan bisita osoan musukoa erabiltzea derrigorrezkoa» izanen da. Gisa berean, «haurrek eskutik hartuta ibili behar dute eta igogailuan edo komunetan banaka sartu behar da». Garbitasuna bermatzeko, berriz, «birusaren kontrako produktuak» erabiltzen hasi dira eta «garbiketaren maiztasuna indartu» dute. Auditorioan ere aldaketak egin dituzte: «orain arte 20 minutuero film bat eskaintzen genuen, eta pena bada ere, ezin izanzen dugu. Horren orde, larunbat arratsaldetan tailerrak eskainiko ditugu».

Aldaketak aldaketa, berriz bisitariak hartzen hasiak eta gainera «kontent» daude erantzuna ona izaten ari delako.

Itxiera profitatu eta berrikuntza handiekin ireki dituzte lezeak

MARIFA ETA KORO

Itxierako lau hilabeteak profitatuz, hainbat lan egin dira lezeetan, eta ondorioz berrikuntza handiekin egin da itxiera. Aspaldi da lezeetan ikerketa sakon bat egin nahi zela. Gaupasak egiten ziren garaietatik baziren hainbat kezka, batez ere lezeak duen jasangarritasunakin, hau da, ingurumenari ahal bezain kalte tikiak egiteko. Ikerketa hau 2018 urtean egin zen, hainbat atal kontutan hartuz: historia, ingurumena, turismoaren eragina, eta gisakoak. Hortik aholku zehatzak bildu ziren, eta horietako batzuk martxan eman dira:

- Leze gainera doan bidea hetsi da (behar bada bertze fase batean moldaketak egin ondorengo berriz irekiko da)

- Eskailerak jautsi eta ezkerreko aldean dagoen galeriako bidean aldaketa handiak egin dira: arkaitz handiak eta arbol etzan bat jarri, bidexka bat egin da, jendea hortik pasatu dadin, inguruko bazterrak kaltetu gabe.

- Leze barneko ibilbide zirkular bat proposatu da, QR kodigoren bidez (edo sarreran dagoen plano bati mugikorraz argazkia ateraz). Honek jendearen ez gurutzatzea laguntzen du, Covid-19aren arriskuak sahistuz.

- Irteera ez da orain bezala sarreratik eginen (eskailera goiti), baizik eta bide berri batetik: Etxeberriko belaietatik. Honek ibilbidea goxatzen du, zelaiagoa delako, eta bertze aldetik bertze paisaia bat eskaintzen du.



Etxeberriko belaiak bidetik du orain irteera lezeak, eskailerarik igo gabe.

 cristalería
BIDASOA

COVID-19tik babesteko neurria egindako manparak
Dutxetako manparak · Kristalezko barandak
Ate korrederak · Sukaldeko aurrealdeak
Koadroentzako markoak
Ispiluak · Beira dekoratiboak

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN - T. 943 61 30 63
info@cristaleriabidasoa.com

BISITATU

URDAZUBI-DANTXARINEA PLANIK ONENA DA!

100 saltoki baino gehiago zure eskura

Moda, aisialdia, pintxoak, lurrin-dendak, likoreak, janari-dendak,
arropak, oroigarriak, bitxiak, jatetxeak...

BENTAK ZABALIK DAUDE URTE OSOAN ZEHAR ASTEKO 7 EGUNETAN



**Eta honako hauek bisitatzeko aukera eskaintzen
duen Nafarroako herri eder tipiko bat:**

Lezeak, museoa, monasterioa, erakusketak, ibilbideak, errota...



www.urdax-dantxarinea.com



Aizpurua txapela soinean.

Haira Aizpurua eskolartekoan txapeldun

Aizpuruarekin batera, Laida Etxeberri ere Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsolari Gazteen Txapelketako finalean izan da

TTIPI-TTAPA

Haira Aizpurua Ibargaraik (2006, Sara) irabazi du Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsolari Gazteen Txapelketa. Bera izan zen uztailearen 11n Senperero Larraldean jokatu zen finalean puntu gehien lortu zituena eta urte luzez Bertsularien Lagunak Elkarte-ko kide eta parte-hartzaile aktiboa izan den Beñat Soulek jantzi zion txapela.

Txapelketak nabarmentzeko bertze kontu batzuk ere utzi ditu. Alde batetik, inoizko parte-hartzaile kopuru altuena izan duen txapelketa izan da:

14 eta 18 urte arteko 24 bertsolarik parte hartu dute. Horietatik 12 finalerdietara pasatu ziren eta lehenbiziko seien artean finala jokatu zuten. Bertzetik, aipatu behar da, finaleko sei bertsolarietatik bortz emakumezkoak zirela, eta denak lapurtarrak, haietako bi saratarak: Haira Aizpurua Ibargarai eta Laida Etxeberri Pacheco (Sara, 2003). Aizpuruarekin eta Etxeberriarekin batera, Oneka Arteaga Olasagasti, Mae Laskarai Lagan, Josu Txoperena Iribarren eta Irantzu Idoate Funosas izan ziren gainerako finalistak.

Gehienez 90 lagun sar daitezke igerilekuan

Hainbat segurtasun neurri hartuta uztailearen 6an zabaldu zuten igerilekua, baina koronabirusa tarteko, gehienez 90 lagun sar daitezke. Eskuetan gel hidroalkoholikoa erabiltzea baitezpadakoa da eta sendatzeko lekua hetsirik dago. Uretara sartu aitzinetik dutxa hartu

behar da eta igerilekutik ateratzean berriz ezin da sartu. Sartzean prezioak joan den urtekoak dira: helduek eguneko 2,50 euro ordaindu behar dute eta abonamendua 18 euro. 5 eta 18 urte bitartekoaren eguneko sartzia 1,50 eurokoa da eta abonamendua 10,50 eurokoa.

2020ko buxeta onartu dute Herriko Kontseiluko hautetsiek

GANEX

Berriki bozkatu dute buxeta 23 hautetsiek. Aurten oraino diruz ongi dabil Herriko Kontseilua baina buxeta berant bozkatua izan denez, aurten bertzelako lanik ez egitea erabaki dute. Hala ere, lehengo zenbait lan finitu beharrak direla oroitarazi dute. Hala nola, aisialdi zentroa irekia da, baina oraino lan batzuk egin beharrak dituzte. Kiroldegian eta bide batzuetan ere lan batzuk egin beharrak dira baina ez da ahan-tzi behar gastu horiek joan den urteko buxetean sartuak direla. Bertzetik, herriko zergak ez igotzea erabaki du Herriko Kontseiluak.



GANEX

rriko elkarte guzietan bilkura egin zuen. Auzapezak eta biek ongietorria egin zieten bildutakoei eta ondotik, proposamenak eta egin nahi dituzten manifestazioen berri galdegin zieten elkarte-ko kideei. Horren kariatara, orrialde batzuk ere banatu zituzten elkarteek zer egin asmo duten biltzeko. Patxi Dutournierrek eman zituen horren gaineko azalpenak eta bilkuraren ondotik, zintzur bustitzea ofreitu zuten.

Elkarteekin bilkura

Uztailearen 13an, berriz, Patxi Basurko Jauregi euskara, kirola eta elkartearen axuantak he-



Uztailearen 11n slacklinen ibili ziren haur, gazte eta helduak. LEIRE FAGOAGA

'Gaztetxe Olimpik' hitzorduaren baitan hainbat animazio antolatu ditu gaztetxeak

TTIPI-TTAPA

Gaztetxe Olimpikizenburupean hainbat animazio antolatu ditu gaztetxeak. Uztailearen 11n egin zuten lehenbizikoa eta slacklinen ibili ziren, haur, gazte zein heldu. Uztailearen 25ean futbolearen aritzeko bilduko dira igerilekuko lur eremuan, 14:00-etatik 20:00-etara. Parte hartze-

ko 06 42 83 35 83ra deitu behar-ko da. Ordutegi bera izaneko abuztuaren 8an petankan eta abuztuaren 22an badmintonen aritzeko hitzorduek. Bi kasuetan 06 69 17 41 00era deitu behar da parte hartzeko. Gaztetxeak lehen aldikoz antolatu ditu animazio hauek eta urri-rik dira, denei irekiak.

'Jolasean Blai' mahai-joko digitala familientzat prest

0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako 'era.eus' plataformak argitaratu du

TTIPI-TTAPAI

era.eus euskaraz ikasten duten 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako plataforma da, Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek elkarlanean sortutakoa. Bertan haurrak euskaraz hazi eta hezteko ahaleginean ari diren gurasoei hainbat gomendio eta laguntza ematen zaizkie.

Ildo horretan, ERA.EUS gurasoen eskura jartzen du online dagoen material ugaria. Horretarako proposamenak bildu eta sailkatu dira, familiendako txukun, eroso eta erabilgarri aurkezturik. Helburu horretan urrats berri bat eginez, *Jolasean Blai* mahai-joko birtuala argitaratu berri da. Honakoa onlineko kultur proposamenen hautaketa bat da, oporretarako dinamika bat proposatzen duena: Altxorraren



'Jolasean Blai' mahai-jokoa.

0'uhartean barrena ibilbide bat egitea. Haurrak bakarrik zein gurasoekin batera aritu daitezke.

Koronabirusak eragindako larrialdiaren ondorioz, ERAk ekimena hartu zuen gurasoei egunero eskaintza ezberdin, kalitatezko, eta erakargarri bat egiteko. Hala, 2020ko martxoaren 18tik maiatzaren 31ra, egunero etxean gozatzeko kultur proposamen bana hautatu zen kulturgileek online

eskuragarri jarri duten horietatik: literatura, musika, jolasak, ikus-entzunezkoak, aplikazioak... Jolasean Blai egindako bilketa-lanaren ondorioz sortu da, honela kalitatezko kultur proposamen hauek modu erakargarri batean aurkezten zaizkio familiari.

Dinamika: egunero, edo bi egunehin behin, edo egokirikusten denean, laukitxo bat aurrera egin behar da. Horieta bakoitzean kultur proposamen bat edo bi dago. Iraupena da bien arteko aldea, proposamen motzak eta luzeak baitaude. Gurasoari proposatzen zaio, beraz, haurrarekin gozatzeko bideo-ipuina, emanaldiak (zinema, antzerkia, musikalak...), bideo-klipak, App-ak... edo sorpresa kutxa ireki daitezke! Nork daki zer topatuko duten bertan! Bestalde, pdf-a zuribeltzean ere deskarga daitezke eta inprimatu: Egongelan edo sukaldeko mahaian jolatu ahal izateko, ibilbidea koloreztatzeko...

Azkenik, nabarmendu nahi dute kultur sortzaileen lana. Haien lanari esker familiek aukera aparta dute seme-alaben gozamenaren etxean euskaraz elikatzeke. Haiek gabe ez zatekeen posible izanen.

Guraso.eus ataria berrituta ageri da hamar urteko ibilbidea eta gero

TTIPI-TTAPAI

Hamar urteko ibilbidea bete berri du *guraso.eus* atariak. Gurasoen premiak asetzeko gunea izaten jarraitzeko, ordea, berrikuntzak egin dituzte plataforma digitalean eta garai berrietara egokitu dira. Guztiz berritu dute eta gaur egun erabiliak diren gailu eraman-garrietarako ere egokitu dute: mugikorrek, tabletak eta abar.

Euskaraz hutsean dago web-gunea. Gurasotasuna eta heziketa dira ardatza, jakina. Askotariko gaietan adituak eta arituak diren kolaboratzaile sare zabala da *guraso.eus* atariaren bereizgarri nagusia.

Garrantzia dute, baita ere, aktualitatearekin lotutako albisteek eta elkarrizketek, aisialdiaren begirako proposamenek-familia planak, eskulanak, jolas proposamenak, erreze-tak...-, hitzorduen agenda berriak edota multimedia atalak non ikus-entzunezkoak, Gurasoak irratsaioa eta argazki-galeriak jasotzen diren.



ARTXIBOKOA

Kukuxu besta asteburuan Sarako plazan

150 erakusmahai inguru bilduko dira asteburu honetan Sarako plaza inguruan, Sarl Orfo Pub elkarteak antolatutako Kukuxu Besta edo antzinako produktuen merkatuaren kariatara. Larunbatean eta igandean, hainbat produktu ikusi eta erosteko aukera izanen da, goiz-arratsalde: liburuak, bitxiak, arropak, altzariak...



IURRE BIDEGAIN

Larhunera independentzia martxa

Ernaik antolatuta, eskualdeko eta inguruko hainbat herritarrek Independentzia Martxa egin zuten uztailaren 14an. «Frantziar Errepublikaren jaiegun inposatuan», Urruñatik (Olhetan) eta Beratik (Altzateko plazan) abiatuta, Larhunera joan ziren. Gailurrean ekitaldia egin ondotik, bertan bazkaldu zuten.

«Maillot laranja hau berriz ere gorenera eramán nahi nuke»

IBAI AZURMENDI SAGASTIBELTZA TXIRRINDULARI LEITZARRA

2018an eman zuen kontinental mailarako saltoa Euskadi Fundazioaren eskutik eta 2021era arte Euskaltel-Euskadirekin kontratua sinatuta, ilusioz hitz egin du taldearen etapa berriaz

E. IRAOLA | LEITZA

Aniari segika hasi zena, bes-teen gurpilak atzean utziz dabil orain. Zortzi urterekin hasi zen lasterketetan parte hartzen Ibai Azurmendi Sagastibeltza (Leitza, 1996) eta geroztik, pedalei gogor eraginez, goranzko bidea egin du. Duela bi urte eman zuen kontinental mailarako saltoa Euskadi Fundazioaren eskutik. Orain, maillot laranja jantzita, Euskaltel-Euskadiko kidea da. Ilusioz hitz egin du taldearen etapa berriaz: «Euskal Herriak behar zuen horrelako talde eta ilusio bat».

Taldeko kotxean aniaren atzetik joanez izan zuen aurreneko hartu-emana txirrindularitzarekin Azurmendik: «aniak parte hartzen zuen lasterketetan bere atzetik ibiltzen nintzen taldeko kotxean sartuta. Bere gogoa, ilusioa... ikusten nituen eta orduan hasi zitzaidan txirrindularitza gus-tatzen». Azkar eman zuen bizikleta gainerako saltoa, «herriko talde batekin hasi nintzen ibiltzen eta zortzi bat urteren bueltan parte hartu nuen aurrenekoz lasterketa batean».

Pausoz pauso aurrera

Urteak pasa ahala kategoriaz aldatu eta gurasoen babesari esker egin zuela aurrera azpimarratu nahi izan du: «hasierako urteetan zirkuitoak izaten ziren eta gurasoek ikaragarriko merituekin batera eta bes-

tera eramaten ninduten. Haiei esker izan nuen kirol honetan aritzeko aukera». Altsasuko Burunda taldekoak izan zituen gero bidelagun, «ikaragarri ongi zaindu ninduten eta haiek erakutsi zidaten profesio-nalera ailegatzeko beharrezko guztia». Gazte mailara arte ibili zen beraiekin, orduan klubak Jorge Azanza aurkeztu eta gaur egun arte bere esku-

tik egin du bidea: «berak era-akutsi dit dakidan guztia eta orain ere bera da nire zuzen-daria».

Kirola eta ikasketak

Ongi lotutako kate baten gisara, «dena lotua» joan den arren, garbi izan du ez zituela ikasketak albo batera utzi nahi: «oso zaila da txirrindularitza-tik bizi guztian bizi ahal izatea».

«EUSKAL HERRIAK BEHAR ZUEN HORRELAKO TALDE ETA ILUSIO BAT»

«OSO ZAILA DA TXIRRINDULARITZATIK BIZI GUZTIAN BIZI AHAL IZATEA»

Momentuan bai, baina etorkizunera begira non heldu izatea garrantzitsua da». Horregatik, afizionatu mailara pasa zenean magisteritza ikasten hasi zen: «lehenbiziko hiru urtetan kirol errendimen-du aldetik mailari eusten saiatu nintzen, baina ikasketei garrantzia berdina ematen nien». Arazorik gabe gainditu zituen lehenbiziko hiru mailak eta profesioalderara pasatzeko aukera ate-joka zuenean kirolarloan eman zion garrantzia: «alde batera utzi nituen orduan ikasketak, baina gelditzen zaidana oso gutxi da; hiru ikasgai eta praktikak baino ez. Txirrindularitza uzten dudan urtean hori dena urte batean erraz ateratzeko modua daukat. Horrek lasaitasuna ematen dit».

Erretiroa hartu aurretik, ordea, podiumekin egiten du amets. Euskadi Fundaziotik, Euskaltel-Euskadi taldea izatera pasa dira aurten eta horrek, taldearentzat zein txirrindularientzat eragin oso ona izan du: «bi urtez aritu gara kontinental mailan eta aurten kontinental pro mailara igo gara. Futboleko hirugarren mailatik bigarreneko salto egitea bezalako da hori». Mundu mai-



Aurtengo erronka nagusia bere buruarengan konfiantza hartzen joatea da.

lako txapelketetarako atea irekitzen die horrek, «munduko hoberenekin lehiatzeko aukera ematen digu eta hori oso garrantzitsua da». Euskaltel konpainiaren babesarekin, «proiektuak etorkizun oso ona» duela ere gaineratu du.

Euskal txirrindularitzari bultzada

Euskal txirrindularitzarentzat ere pauso garrantzitsua dela uste du: «Euskal Herrian lehen zegoen sentimendu hori berpizten ari da eta hori telebisitatik ikustea, argazkiak ikustea... marea laranja hori berriro errepide bazterretan ikustea zoragarria da». Are gehiago fenomeno horren parte izanda, «zu izatea egunero soinean maillot laranja janzten duena... Hori ikaragarritzko ohorea da. Egunero ilusioz entrenatzeko motibazioa da». Taldearen iraganeko lorpenak begiz joak ditu leitzarrak: «ez da ahaztu behar Euskaltel-Euskadi mundu mailan erreferente bat izan zela. Ikusi besterik ez dago, zer nolako txirrindulari ateraziren talde horretatik. Adibidez Mikel Nieve bera, ikusten da zein mailalara iritsi den eta Euskal Herrian hazi zen». Azurmen diren ustez, nahiko beltz zegoen euskal txirrindularitzarentzat argi izpi bat izan da Euskaltelen babesa: «Euskal Herriak behar zuela horrelako talde eta ilusio bat. Jendea gogotsu zegoen, ikusi besterik ez dago zaleek lehenbiziko egunetik erakutsi diguten babesa».

Urte berezia

Mallorca eta Andaluzian lehiari hasi zuen urtea «ongi ikusi nintzen, ilusioz nengibilen». Covid-19ak, ordea, goitik behera aldatu zizkien egutegi eta entrenamenduak: «denongan izan du eragina. Momentu gogorak izan dira nola presatatu, erritmoa ez gelditu... baina taldeak lasaitasuna ematen zigun datorren urterako ez dela arazorik izanen esanez». Lasterketak bertan



Zaleengandik jasotako erantzuna «egunero ilusioz entrenatzeko motibazioa» dela dio txirrindulari leitzarrak.

behera gelditu zirela ikustekak pena ematen zion arren, argi dio ez zela egoistak izateko garaia: «jendea latzak pasatzen ari zen, egoera muturrekoa zen. Kirol arloan pasatzen ari zena bigarren mailakoa zen. Azkenean onginengoen, etxean nengoen, taldeak lasaitasuna ematen zidan, zer gehiago eskatu behar nuen?». Egoerara moldatu eta lanean segitu, horixe izan du azken hilabeteetako errezeta: «orain egutegi bat jarri digute eta suerte pixka batekin izanen dugu lasterketa politikak lehiatzeko aukera».

Okerrik ez bada, hilabete bukaeran Burgos edo Frantzia hasiko da berriz ere lehiari, «egun berean hasten dira bi

lasterketak eta bietako batean egonena naizela uste dut. Inportanteena berriz ere lehiatzea da eta berriz ere lasterketako sentsazio horiek bizitzea».

Euskaltelekin 2021era arte sinatua du kontratua, «aukerak baditut oraindik». Aurten go helburua bere buruarengan konfiantzahartzen joatea omen zen: 2018a oso urte ona izan zen, maila dezenteko lasterketak jokatu nituen eta ongi moldatu nintzen. Maila polita eman nuen, mundialak jokatzeko aukera izan nuen eta imajina ezin nitzakeen ametsak bete nituen». Pasa den urtean, ordea, oreka ezin aurkituz ibili zen: «lehen go urtea gogorragoa egin zitzaidan, nire buruari gehiago exi-

jitzen nion, batzuetan gehiegi eta ez nintzen egoerara ongi egin, beti gehiago nahi nuen». Horregatik, aurten bere buruarengan konfiantza hartzen joateko ari da lanean.

Nieve bidelagun

Bidelagun egokia topatu du horretarako: «Mikel Nieverekin entrenatzen ari naiz, oso eskuzabal ari da jokatzenekin eta motibazio handia da niretzat». Miresmenez hitz egiten du bere maisu bihurtu denaz: «berak nik bizi nahi dudana guztia bizi izan du. Esaten didan guztia xurgatzen saiatzen naiz eta nik uste aurrrera egiteko hori bide polita dela». Antzeko ezaugarriak dituzte biek, mendateak maitatzen dituzte eta eskalatzailerak onak dira. Horregatik, badaki esku onetan dagoela: «badakit berrari segituz nire mailarik hoberena emanen dudala eta nire hoberena ematen badut badakit aukerak ditudala aurrean ibiltzeko».

«EUSKALTELEN BABESAREKIN PROIEKTUAK ETORKIZUNA DU»

«MIKEL NIEVE OSO ESKUZABAL ARI DA JOKATZEN NIREKIN»

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

762 aleko
irabazleak ➤



Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Josetxo Urreta Arribillaga | ARANTZA
Buatxabal - Kamiseta bat
Lourdes Mariezkurrena Telletxea | LEITZA
La Rhune - 2 sarrera
Ines Azkarate Morales | ELIZONDO
WOW Park - 2 sarrera
Txaro Ezkurra Zunzarren | DONEZTEBE
BKZ abentura - 2 sarrera
Igor Telletxea Otxoteko | LESAKA
Astizko Lezeak - 2 sarrera
Jose Zabaleta Caballero | EZKURRA
Airaka - Diska bat
Xabi Ospital Agerrebere | ERRATZU
Airaka - Diska bat
M^a Dolores Bazterrika Indakoetxea | ARITZU

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

Wow Park

wowpark.fr



2 sarrera

IRRISARRI LAND

www.irisarriland.com



2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

**LIBURUAK
MUSIKA
DVD-AK**



1. lotea

- Bizi Dantza
- Gure familia
- Sentitu, pentsatu, ekin!

2. lotea

- Musua
- Musua marrazki tailerra
- Sentitu, pentsatu, ekin!

Katxiporreta

www.katxiporreta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.elkar.eus



www.rhune.com

HERIOTZAK

- **Martina Bikondoa Iturralde**, Elizondokoa, uztailearen 2an, 89 urte zituela.
- **Laureano Maillo Lamas**, Elizondokoa, uztailearen 2an, 78 urte zituela.
- **Josetxo Etxegarai Oiartzabal**, Lesakakoa, uztailearen 2an, 59 urte zituela.
- **Miguel Etxepare Agesta**, Lesakakoa, uztailearen 3an, 74 urte zituela.
- **Jose Miguel Sagastibeltza Iturrarte**, Leitzakoa, uztailearen 7an, 85 urte zituela.
- **Martina Garbalena Goñi**, Lekarozkoa, uztailearen 10ean, 87 urte zituela.
- **Miguel Dagerre Larregi**, Erratzukoa, uztailearen 11n, 92 urte zituela.
- **Jose Luis Altzugarai Aiertza**, Elizondokoa, uztailearen 12an, 82 urte zituela.

SORTZEAK

- **Eñaut Babaze Zabaleta**, Urrozkoa, ekainaren 6an.
- **Liam Xabier Requena Agurcia**, Doneztebekoa, ekainaren 11n.
- **Lorea Irigoien Telletxea**, Doneztebekoa, ekainaren 19an.
- **Enaitz Errandonea Enparan**, Sarakoa, ekainaren 21ean.
- **Luken Etxebeste Santesteban**, Doneztebekoa, ekainaren 24an.
- **Markel Ibarra Bertiz**, Doneztebekoa, ekainaren 25ean.
- **Majli Amaia Gras**, Sarakoa, ekainaren 28an.
- **Adrian Jimenez Etxeberria**, Lesakakoa, ekainaren 29an.
- **Oinatz Larralde Arruti**, Lesakakoa, uztailearen 2an.
- **Adur Almandoz Elola**, Lesakakoa, uztailearen 3an.
- **Enai Telletxea Zelaia**, Lesakakoa, uztailearen 3an.
- **Iraitz Arrieta Urtxegi**, Igantzikoa, uztailearen 3an.

EZKONTZAK

- **Michel Marciano** eta **Marguerite Urbiet**a, ekainaren 19an Saran.
- **Fabien Goienetxe** eta **Kelly Desreumaux**, ekainaren 20an Saran.
- **Urko Loiarde Etxekolonea** eta **Iratxe Labiano Anzizar**, Zubietakoa eta Burlatakoa, uztailearen 7an Donezteben.
- **Patxi Etxeberrigarai** eta **Isha Hiribarren**, uztailearen 9an Saran.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61era idatzi beharko du.



Hil-ondorako kontratuarekin, aukeratu nahi duzun agurra

Doluan laguntza eta herentzia tramitazioa

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan, Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

URTEURRENA

Ixabel DANBORIENA ARRETXEA

Aurtitzen, 2019ko uztailearen 26an
I. urteurrena

Urte bat pasa da hemendikan joan zinela jadanik Geroztik hemen ez dugu izan lehen aina alaitasunik Izarririk ezta zuk bezala beste mundua argitzen dunik Ama ta amatxi, zutaz pentsatu gabe ez dugu pasa egunik Eta ez pentsa egunak pasaz ahaztuko zaitugunik!



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Joxe Manuel Martindene

Elizondon, ekainaren 25ean

Zenbat urtetan Erdizko markan bazkaltzera txabolara ardiak mozten aziendak hezten zenbat egun eta gaba istorio zaharrak kontatzen edo aziendakin ferietara zure lagun ta auzokideak zutaz oroituko gara.



BAZTAN BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita **BERTIZARANA**, **BORTZIRIAK**, **URDAZUBI** ETA **ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK** ere

24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50

info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | **DONEZTEBE** (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | **LESAKA** (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara



948 63 74 04 / 948 19 70 70

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

SUNBILLA. Pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, ganbara eta bi balkoi ederrekin. Oso egoera onean dago. ☎682 40 24 17 / 686 27 92 52.

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

LESAKA. Etxe dotorea salgai, hobekuntza aunitz dituen. Argibide gehiagorako eta ikusteko deitu. Eskaintzak aditzeko prest. ☎609 47 72 77.

BERTIZARANA. Borda salgai ura eta argiarekin. 20.000 m²ko lur eremuarekin. ☎693 69 49 76 (Jose M^o).

LABAIEN. Zaharbertzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.

EROSI

BERA-LESAKAn enpresa eraikitzaile bat pisu bila. 600 euro arte ordaintzeko prest ☎657 05 04 43 (Patxi).

MALERREKA, BAZTAN ETA BORTZIRIAK aldean baserria, etxebizitza, borda edo eraikitzeko lurrak erosi nahi dituzte. ☎640 07 65 75.

ERRENTAN EMATEKO

BARAÑAIN. Ikasleentzako pisua errentan emateko. ☎626 36 38 49.

ERRENTAN HARTZEKO

LESAKA. Familia batentzat moduko pisua errentan hartu nahi dute udarako. ☎699 04 05 08.

MALERREKA-BAZTAN aldean pisua errentan hartu nahi dute, epe luzerako. ☎600 64 34 60.

LESAKA. Jubilatutako pentsiodun apartamentu bila, lagun bat bizitzeko eta xumea: logela bat (ohazterik gabekoa bada ere berdin dio), sukaldea (hozkaile gabekoa bada ere berdin dio), komuna... 300 euro arte ordaintzeko prest. ☎658 50 38 95.

KONPARTITZEKO

IRUÑEA. Iturruma auzoan uztailearen 6tik aurrera logela bat libre geldituko da. 28-31 urte bitarteko bi neska eta mutil bat gara. 205 euro + gastuak, eta garaje plaza ere badago 50 euro/hilabete. Adin tarte horretako norbait nahi dugu eta gutxienez 6 hilabete egoteko. ☎618 23 93 13.

GARAJEAK/LOKALAK

KONPARTITZEKO

LESAKA. Konpartitzeko garaje bila, motorra sartzeko. Prezio ekonomikoa. ☎675 70 27 42 (Alex).

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58 🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61 @ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Tipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

LURRAK/ORUBEAK

EROSI

Etxebizitza egiteko, botatzeko edo zaharbertzeko lurrak erosten ditugu. ☎640 07 65 75.

ZUBIETA. Herri xarmangarria. 400m²ko partzela urbanizatua salgai. Herriko zonalde onenean, erreka ondoan, eguzkitsua, erakargarria eta

bibrazio onak. 50.000 euro. Erraztasunak. ☎698 51 15 25.

LANA

ESKARIAK

Adinekoak zaintzen, sukaldari laguntzaile eta garbitasunean esperientziadun emakumea lan bila. ☎632 50 78 36.

Haur Hezkuntza ikasten ari den Doneztebeko neska gazte bat udan umeak zaintzeko prest. Auto propioa, eta inguruko tokietara mugitzeko arazorik ez. Edozein zalantza argitzeko deitu konpromisorik gabe. ☎638 91 46 94.

Esperientzia handia duen erizain laguntzailea adinekoak edo haurrak zaintzeko prest. ☎605 24 30 57 / mitxina37@hotmail.com.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

- Idixkoak: €/kg kanal**
- Extra 4,02
 - 1.koa 3,90
 - 2.koa 3,75

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,13
- 1.koa 3,99
- 2.koa 3,85

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 170,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,26/3,36
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,50/7,30
- 8-10 kilokoak: 6,65/5,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 45 €

Zerri gizona 1,328 €

Zerramak 0,430€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (ekainaren 26tik uztailearen 3ra bitarteko prezioak)

ESKAINTZAK

BORTZIRIAK. Aholkularitza bulego batean aritzeko langile bat behar dute. Lan-arloan aditua. Curriculumak: laneskeintza31@gmail.com.

BERA. Familia batek adineko pertsona bat zaintzeko norbait behar du. ☎696 57 82 56.

MOTORRAK

SALGAI



BMW 530-da autoa salgai, 218 zaldi, oso egoera onean. 2004koa. 330.000 km eta IAT-ITV pasa berria. Barrua larru beltza. ☎647 97 88 32.

TAILERRAK



DENETARIK

SALEROSKETAK

Weibang markako **belarra mozteko makina** salgai, ia berria eta gasolinarekin ibiltzen dena. Bateriarekin funtzionatzen duen bazterrak mozteko makina ere salgai, ia berria. Deitu 09:00-13:30 eta 17:00-20:00. ☎948 63 05 67 / 605 71 67 30.



Bi hilabete baino ez dituen **ospitaleko ohatzea** salgai. Nules Plus, 90x190 cm eta gurpil independentek. Hiperfoam Plus 90x190 koltxoia. Koltxoi gainekoa Suavites 190x90 cm, transtapablea eta iragazgaitza. Zuntzeko burkoa, 90 cm-koa. Mahaitxo zuri tolesgarria. 1.200 euro. ☎673 54 87 67.

Mendiko bizikleta elektriko salgai, berria, gutti erabilia. Prezio onean. ☎675 60 35 27.

GALDU-AURKITUAK

Uztailaren 10ean, 18:00etatik 19:00etara bitartean, **antejo** errektangular samarrak, marko berdekoak marra morearekin, **galduak**. ☎699 54 68 13 / 646 05 02 33.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



LESAKA. 5 katakume opari, ekainaren 18an jaiok. ☎688 94 99 99.



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea



EZ GALDU AUKERA!

Aluminio eta forex panelak,

neurrira eginak!

Koskontako bidea, 7-1.
31770 LESAKA (Nafarroa)
Tel.: (0034) 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com


URTEBETETZEAK



Arantzako **Izaro Landa Iparragirrek** 6 urte beteko ditu abuztuaren 4an. Auniz urtez printzesa, familia guziaren partetik!! Ongi pasatu!!




Auniz urtez uztailaren 1an eta 21ean urteak beteko dituzten **Ainara eta Maialeni**!



June Mendiburu Andresenak uztailaren 12an 7 urte bete ditu! Auniz urtez! Muxu eta besarkada potoloak zure familiaren partetik.



Tiane Larretxea De Mateo beratarrak 17 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Auniz urtez familiaren partetik eta pasa uda ederra!




Zorionak **Aiala Ziluaga Iturria**! Segi orain bezain jator eta alai!



Janire Ibaruri Anduezak 8 urte beteko ditu abuztuaren 7an. Zorionak printzesa! Muxu handi bat familia guziaren partetik!




Takatakata taka, uztailaren 31n Arantzako **Iker Alzuri Lujanbioren** 8. urtebetetze eguna heldu da tiki-ttaka eta ospatu dezagun pozez kantaka! Muxu potolo bat familia guziaren partetik!



Xuban Ugalde Pikabea arantzarrak 5 urte beteko ditu uztailaren 29an. Auniz urtez eta muxu handi bat familia guziaren partetik. Ongi pasa zure eguna, txapeladun!



Igantziako **Maialen Almandozek** 4 urte beteko ditu abuztuaren 3an. Zorionak eta auniz urtez etxeko sorginari! Muxu haundi bat!



Arantzako **Lorea Apeztekea Goñik** 3 urte beteko ditu abuztuaren 2an. Zorionak izeba Aneren partetik. Ongi pasa eguna eta muxu haundi bat potola!



Zubietako **Iker Loiarde Otxandorenak** 16 urte beteko ditu uztailaren 21ean. Auniz urtez eta zorte on hartutako bidean!



Olaia Irureta Goñi gure etxeko printzesa 4 urte bete ditu uztailaren 14an. Zorionak familia guziaren eta bereziki Xubanen partetik. Muxu haundi bat.



Egun hauetan besta egun auniz ditugu ospatzeko!! **Aroak** 7 urte bete ditu uztailaren 19an, **Ekaitzek** 5 urte 20an eta **Iñakik** 40 urte beteko ditu 26an. Abuztuaren 17an, berriz, **Anderrek** bere lehenbiziko urtetxo beteko du. Auniz urtez eta muso haundi bana familia guziaren partetik. Bazkari eder baten esperoan geldituko gara!!



Uztailaren 23an **Arai Arteaga Andresenak** 7 urte beteko ditu. Zorionak! Muxu eta besarkada potoloa zure familiaren partetik. Ongi pasa zure eguna!



Berandu baina seguru! Auniz urtez **Saioa** uztailaren 20an urteak bete dituzulako. Muxu haundi bat eta espero dugu egun ederra pasatu izana!

PLAZAN BAZAN



HAMAIAKAKOA






Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.




ITZALA

Bai dibertigarria tirolinal!
Asma ezazu tirolinan doan honen itzal zuzena.

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Metro eta erdi, kirola egiteko



Sintomak badituzu, isolatu etxean eta deitu berehala osasun etxera
Mantendu distantzia eta erabili maskara
Eskuak, maiz, ondo garbitu

ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITZAZU